ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2010-11-15
ASTELEHENA
298 ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Hegan egiten utzi dugu gure enara"



Idazle Eskolak Karmele Igartua Aretxabaletako poeta omendu eta etapa bat itxi du | 29

Bergarako garai zaharrak Aitor Aginagalderekin (HB) | 10



Umeak heztea: gurasoen ala aitaita-amamen ardura? | 28



GOIENAren 10. urteurren jaia: hunkigarria eta berezia | 12



# Imanol Molinero oñatiarra Behobia-Donostiako debagoiendar azkarrena



Imanol Molinero helmugaratzen. | J.A.

Nesketan, berriz, Rakel Alonso izan zen lehena; ibarreko 472 lasterkarik parte hartu zuten | 22-25

## Ehuneko muga pasa duten 15 aitajaun eta amandre ibarrean | 02-03

## Gidari ororentzako bidesaria Deskargako tunelean | 04



# ZUBIKOA, DARDARKA

Sustrai Aloñak 110-103 irabazi zion MUri, luzapenean. Derbi historikoa izan zen | 26

Mikel Biain oñatiarra saskiratzea egiten.

JOSETXO ARANTZABAL




+25 urte

Toyotaren kontzesionario sarean urteurrena ospatzen gabiltza.

TOYOTA



AZKEN UNITATEAK



Orain duzu aukera, Toyota auto berri bat prezio ezin hobean.

| MODELOA | EKIPAMENDUA | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|---|
| Toyota AYGO 1.0 68 ZP 5 ate Blue | • Aire girotua, 4 aire-poltsa, irratia, 6 CD, bozgorailuak + USB, iPod, Bluetooth konexioa. | 11.100 € | 8.700 € |
| Toyota Yaris 1.0 69 ZP 5 ate TS | • Aire girotua, llantak, 7 aire-poltsa, lainotako argiak, irratia, CDa, MP3, 6 bozgorailu | 14.850 € | 10.500 € |
| Toyota IQ 1.3 99 ZP IQ | • Aire-girogailua, llantak, 9 aire-poltsa, lainotako argiak, egonkortasuna kontrolatzeko sistema, irratia, Cda, MP3, 6 bozgorailu, euri eta argi sentsorea, autoan sartzea eta martxan jartzea giltzarik gabe, larruzko edo telazko eserlekua berogailuarekin, Stop&Start, 6 abiadura. | 15.900 € | 13.020 € |
| Toyota Auris 2.0 Diesela 126 ZP 5 ate TS. | • Aire girotua, llantak, 7 aire-poltsa, lainotako argiak, 6 abiadura, irratia, CDa, MP3, USB, 6 bozgorailu | 20.650 € | 15.900 € |
| Toyota Verso 2.0 Diesela 126 ZP - 7 eserleku Active | • Bi zona aire-girogailua, llantak, 7 aire-poltsa, abiadura, lainotako argiak, 6 abiadura, egonkortasuna kontrolatzeko sistema, irratia, CDa, MP3, 6 bozgorailu, Bluetootha. | 25.350 € | 20.850 € |

Zatoz gu bisitatzera, auto gehiago ditugu prezio berezian.

3 GARANTIA BIDAIAKO LAGUNTZAN

EuskoAuto

BERGARA Olabarrena, z/g Tel.: 943 76 23 85
ELGOIBAR Olaso industrialdea Olaso Kalea 23 - Tel.: 943 74 74 17
PASAIA ANTXO San Markos bidea 32 Tel.: 902 34 52 45
OLABERRIA Karobi Industrialdea Tel.: 943 80 59 26

BEZa, garraioa, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza baliagarria hil bukaera arte penintsulan eta Balear uharteetan, biltegian dauden autoentzat. Kontsumo konbinatua (l/km): 3,9tik 14,4ra. CO2 emisio konbinatuak (g/km): 89tik 340ra).

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | HEZIKETA 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TEKNOLOGIA BERRIAK 36 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Ehuneko muga pasa duten 15 aitajaun-amandre Debagoienean

- 100 urtetik gorakoak ugaritu egin dira urteotan
- Bergaran eta Eskoriatzan bosna herritar dituzte
- Andres Agirianok 104 egingo ditu hilaren 30ean



Andres Agirianok 104urte beteko ditu hilaren 30ean. | ESKORIATZAKO UDALA



Segunda Martinez Bergarako Mizpirualde egoitzan. | MIZPIRUALDE EGOITZA

MIRIAN BITERI | BERGARA

Orain arte oso zaila zen 100 urte zituzten debagoiendarrak topatzea; bakar batzuk baino ez zeuden gure artean. Hori, baina, aldatzen doa apurka-apurka eta gero eta ohikoa bilakatzen ari da mendea dutenak ezagutzea.

Eskoriatza berezia da: 4.000 biztanle pasatxo dituen udalerrian 100 urtetik gorako bost herritar daude. Andres Agiriano da guztien artean zaharrena, 104 urte beteko ditu hilaren 30ean. Bolibar elizateko Karoi baserrian bizi da hura. Ignazio semearekin egon gara eta azaldu digu adinak eragindako ajeak baditu ere, osasunez nahiko ondo dagoela, eta oraindik baserriko lanetan laguntzea gustuko duela; hain justu ere, animaliendako ogia zatitzen pasatzen du denbora luzea.

Horrez gain, egunero zertxobait ibiltzen dela ere aipatu digu. Bisitak ere asko gustatzen zaizkio eta gustura hartzen ditu urtero, azaroaren 30ean, udal ordezkariak eta Olazar erretiratuen elkartekoak. Eskoriatzan ohitura dute 100 urte betetzen dituztenei lore sorta eta oparitxoa egitea haien urtebetetze egunetan.

### Sabina Artatzaren 103 urteak

Esan bezala, Eskoriatzan beste lau herritar daude: Sabina Artatzarrek 103 urte bete zituen irailaren 29an, Carmen Aranburuzabalak 101 uztailaren 16an eta Bernabe Errastik eta Santa Abasolok mendea egin dute aurten. Gogoratzekoa da, gainera, maiatzean 101 urterekin hil zela Rosalia Blanco; Helduen Eskolak izandako ikasle zaharrena.

Eskoriatzako Gizarte Zerbitzuetako teknikari Agurtzane Altubek guztiak ezagutzen ditu, zinegotzi eta Olazarkoekin batera urteak betetzen dituztenean euren etxeetara edo egoitzara joaten dira-eta zoriontzera. Gogorarazi du mendea beteta duten bost eskoriatzarretatik lau euren etxeetan bizi direla. Horrekin batera, azpimarratu du inoiz ez duela horrelakorik ezagutu. Hauxe dio Altubek: "90eko hamarkadan hasi nintzen lanean eta 100 urtekorik ez zegoen; ezta lehenago ere. Txikia nintzenean, 100 urtera iritsi zen inguruko baserriko bat; salbuespena zen".

> **ESANAK**
>
> **"Eskoriatzan ez zegoen 100 urtekorik 90eko hamarkadan"**
>
> AGURTZANE ALTUBE | TEKNIKARIA

### 20 urtean beste hiru egoiliar

Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzan ere harrituta daude horren harira. Egun, 100 urteko hiru egoiliar dituzte: Felisa Larrañaga, Segunda Martinez eta Teodora Ortuzar. Azken horrek joan den astean egin zituen urteak; hain justu, azaroaren 9an. Hango Alazne Irazabalek esan digu bera 1990an hasi zela han lanean eta inoiz ez dituela elkarrekin izan mendea duten egoiliarrak. Haren esanetan: "Orain hiru ditugu batera eta datorren urtean beste bi izatea espero dugu. Hori ez da inoiz gertatu. Lanean daramatzan 20 urteetan beste hiru egoiliarrek bete dituzte gure artean 100 urte, baina ez dira elkarrekin egon".

Hiruren artean, Segunda Martinez da osasunez ondoen dagoena. Irazabalek nabarmendu du gainerako egoiliarrei asko laguntzen diela. San Antonioko bergarar horrek

**ADIN BANAKETA ETA ZAHARTZE INDIZEA**

| HERRIA | URTEA | ZAHARTZE INDIZEA | BIZTANLERIA | 0-19 URTE | 20-59 URTE | 60 URTETIK GORA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arrasate** | 2009 | %172,8 | 22.064 | 3.474 | 12.587 | 6.003 |
| **Bergara** | 2010 | %157,0 | 14.666 | 2.535 | 8.152 | 3.979 |
| **Leintz Gatzaga** | 2009 | %151,1 | 266 | 45 | 153 | 68 |
| **Oñati** | 2009 | %148,6 | 10.896 | 1.920 | 6.122 | 2.854 |
| **Elgeta** | 2009 | %138,2 | 1.069 | 186 | 626 | 257 |
| **Eskoriatza** | 2009 | %132,4 | 4.063 | 709 | 2.415 | 939 |
| **Aretxabaleta** | 2009 | %127,8 | 6.689 | 1.215 | 3.921 | 1.553 |
| **Antzuola** | 2009 | %122,4 | 2.168 | 393 | 1.294 | 481 |
| **DEBAGOIENA** | **2009** | **%153,7** | **61.922** | **10.448** | **35.415** | **16.059** |

*Oharra: Zahartze indizea: 60 urtetik gorakoak / 20 urtetik beherakoak. bebeherakoak.

ITURRIA: BERGARAKO UDALA ETA INE

UDALAITZ
ARRASATE - MONDRAGÓN
SEAT
Audi
AUTOKASIOA
Volkswagen sareak
bermatutako
okasioko ibilgailuak
Gipuzkoa etorbidea 36
Tel.: 943 71 18 70
www.udalaitz-arrasate.com



Carmen Aranburuzabalak 101 urte egin zituen egunean. | ESKORIATZAKO UDALA



Narciso Beitia, gatzagarren aitaita. | IKER BARANDIARAN



Sabina Artatzarrek 103 urte egin ditu aurten. | MIRIAN BITERI



Teodora Ortuzar bergararra, joan den astean. | MIZPIRUALDE

ez du bizitza lasaia izan: 11 urterekin lanean hasi zen ehundegi baten, eta 18 urterekin Madrilen zegoen, Primo de Rivera diktadorearen etxean lan egiten. Parisen, Argentinan eta Uruguain bizi izan ostean, Donostiara joan zen eta 70 urterekin ezkondu egin zen eta Bartzelonara joan zen bizi izatera. Orain dela 10 urte alargun geratu zenean, Bergarara itzuli zen. Ordutik hona Mizpirualde egoitzan bizi da. Agian, joan-etorri horretan egon daiteke hainbeste urtez bizi izateko sekretua.

Mizpirualdeko lagunez gain, beste bi emakume daude Bergaran mendea beteta dutenak: Felisa Garitano eta Klara Martinez.

Arrasaten eta Oñatin bina daude. Arrasaten, Hilario Uzarraga eta Alejandra Zaldunbide. 100 urte dituzte biek. Arrasateko erroldaz arduratzen den Jose Mari Balantzategik urte asko daramatza lan horretan eta azkenaldian igarri du jendea gero eta urte gehiago bizi dela. "Bi arrasatear ditugu orain; eta datorren urtean, lauk beteko dute mendea. Nabaria da gero eta gehiago bizi garela, 90 urtetik gorako asko ditugu-eta gaur egun herrian. Bizi-kalitatea hobetu den seinale. Lehen ez zeuden toki aproposak eta asistentzia ez zen egungoa bezalakoa, eta, hortaz, gazteago hiltzen zen jendea".

**Zorionak, Rufino!**

Oñatin, Rufino Arantzetak 101 urte egingo ditu gaur, eta pastelak eta lore sorta jasoko ditu etxean, Udalak bidalita. Gizarte Zerbitzuak 101 urte edo gehiago egiterakoan hori egiteko ohitura du; 100 urte egiten dituztenek, ostera, alkate eta zinegotzien bisita jasotzen dute. Bestalde, Rosario Kortabarriak 102 urte bete ditu.

**Gatzagarren omenaldia**

Leintz Gatzagan ere badute aitaita bat: Astaisolo baserriko Narciso Beitia. Urriaren 30ean 100 urte bete zituen, eta, hori dela-eta, herritarrek omenaldi polita egin zioten. Umore eta sasoi onez dago Beitia eta omenaldia merezi zuela esan zuen urtebetetze egunean, "hainbeste urte" bete dituelako, ez da-eta erraza".

Horrenbeste urte betetzeko sekretua ere esan digu: bizitza osoan lan asko egitea, "lan egin ezean, gorputza moteldu" egiten da-eta. Ondo jatea ere ezinbestekoa dela aipatu du. Azken horrekin bat egin du Andres Agirianok. Ignazio semearen esanetan, "beti esan du sekretua edatean eta jatean dagoela".

Azkenik, Aretxabaletan, Antzuolan, Aramaion eta Elgetan ez dago 100 urtekorik.






Tunela eraikitakoan, gidariak erabakiko du zein bidetatik joan; egun, mendatea igarotzea da aukera bakarra. | G.A.

# Gidari orok ordaindu beharko du bidesaria Deskargako tuneletik pasatzeko

## Neurria 2013an jarriko da indarrean; tunela ordurako bukatzea aurreikusten da

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Urretxu-Bergara zatiko lanak finantzatzeko eta kamioiek Deskarga Etxegarateren alternatiba moduan ez erabiltzeko helburuarekin hartu dute tunelean bidesaria ezartzeko erabakia, Gipuzkoako Azpiegituretarako diputatu Eneko Goiak adierazi duenez. Bidesaria ibilgailu ororentzako ezarriko da eta ibilgailu arinak deskontuez baliatu ahal izango dira; ordainlekuak Urretxuko zatian joango dira. Goiaren esanetan, gure lurraldeko errepideak finantzatzeko modu bakarra erabiltzaileek eurek ordaintzea da. Eta argudio hori bera erabili du GI-623an bidesaria ezartzeko hartutako erabakia arrazoitzeko; Urretxu-Bergara zatia 170 milioi euro kostako da eta bidesarien bitartez ordainduko da, foru aurrekontuko diruarekin beharrean.

Eneko Goiak ez du aurreratu zenbateko bidesariak izango diren baina, Leber kontsultorak egindako proposamenaren arabera, ibilgailu arinek euro bat ordainduko dute eta kamioiek bederatzi eta hamar euro artean. Aurreikuspenen arabera, Urretxu-Bergara zatia 2013 urterako egongo da gertu. Honekin, lau izango dira Gipuzkoan ordaindu beharreko errepide sareak.

# Estatu espainolak eta frantsesak oinarrizko eskubideak urratzen jarraitzen dutela salatu du AAMk

**G.A.** | BERGARA

Bergarako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, hainbat lagun herriko plazan batu ziren egubakoitz iluntzean. Euskal presoek Meaux-Cahuconin-Neufmontiers espetxean (Frantzia) bizi duten egoera salatu zuten. Bertan daude Iker Beristain algortarra, Beñat Aginagalde hernaniarra, Alex Uriarte gasteiztarra eta Iñaki Arietaleaniz *Bixkai* bergararra, eta gose greban egon dira 26 egunez, euretako bati –Beristaini– "aitatasunaren oinarrizko eskubidea ukatu diotelako". "Bi hilabete pasa behar izan dira Le Vert epaileak alaba jaioberria ikusteko aukera eman diezaion", azaldu zuen Maite Ilarduiak, Bergarako AAMren izenean. "Gertaera hori salatu eta gure animuak bidaltzeko elkartu gara gaur hemen", gehitu zuen.

Ilarduiaren esanetan, "gertatutakoak erakusten du estatu espainolak eta frantsesak gatazka politikoa luzatzeko apustua egin dutela beste behin ere; euren legeak bete eta oinarrizko eskubideak urratzen jarraitzen dutela, egoera ez demokratikoa agerian utziz".




Egubakoitz iluntzeko agerraldia. | JOSETXO ARANTZABAL



C-MAX gama batez besteko kontsumoa 4,6-6,9 l/100km. CO2 igorpenak 119-159 g/km.
Salneurri berria penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: C-MAX Trend 1,6, TDCI 95 ZP barruko eta kanpoko Trend paketearekin. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Eskaintza ez da baliagarria langileentzako eta flotentzako. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena.
Ford
Feel the difference
MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE



Pakistandarrek Zubiaurren erositako lokala, barrutik. | JOSETXO ARANTZABAL

# Pakistandarrak meskitako lanen baimenaren zain

Debagoieneko lehen meskita izango litzateke Bergarakoa; Zubiaurren dute lokala pakistandarrek

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergara eta inguruko herrietako pakistandar komunitateak obra baimen eskaera egin du Bergarako Udalean, Zubiaurren meskita bat egokitzeko. Obra baimena jasotzeko zain daudela adierazi digu Mohamad Afzal Chohan Khatanak, pakistandarren ordezkaria bilakatu dena.

Zubiarre kaleko 21. zenbakiko egoitza egokitzeko lanak egingo dituzte baimena jasotakoan. Besteak beste, komunak jarri eta lokala intsonorizatzea da pakistandarren helburua. Lanok, elkarteko bazkideek egingo lituzkete nagusiki. Chohan Khatanak eman dizkigun datuen arabera, 60 lagun inguru biltzen dira gaur egun sortu duten elkartearen inguruan. Antolaketari dagokionez, hiru gune nagusi izango ditu Bergarako meskitak: otoitz egiteko gunea, kultura jardueretarako (hizkuntza eskolak emateko, tartean) bideratuko dutena eta, azkenik, emakumezko musulmanei zuzendutakoa. Debagoieneko lehen meskita izango litzateke Bergarakoa. Eibarren bada meskita bat aspalditik.

**ESANAK**

**"Otoitz egiteko eta kultura jardueretarako erabiliko dugu Bergarako meskita"**

CHOHAN KHATANA | OÑATIKO MUSULMANA

**DATUA**

**60**

LAGUN

Gaur egun 60 lagun inguru biltzen dira Bergarako meskitaren inguruan.

**Musulman kopuruak gora**

Gaur egun, esan bezala, pakistandarrak soilik biltzen dira Bergarako meskitaren inguruan. Egubakoitzetan arratsaldez ibiltzen da jende gehien han. Asteko gainerako egunetan kopuru aldakorra dela esan digu Chohan Khatanak. Zera ere zehaztu nahi izan du: meskita zabalik egongo dela edozein nazionalitateko musulmanei.

Azken urteotan bailarako musulmanen kopuruak gora egin duela adierazi digu Chohan Katana oñatiarrak. Gizonen familia ugari etorri da aspaldian Debagoienera. Euren kulturari eusteko, meskitari heldu nahi diote orain.

Iñigo Iñurrategi | Garabide elkartea

# "Gu izan ginen bidegurutze berean daude gaur egun hizkuntza gutxitu asko"

Hego Amerikako eta Euskal Herriko adituek hizkuntzen estandarizazioa landuko dute

**E.M.** | ESKORIATZA



Iñigo Iñurrategi. | GOIENKARIA

Hegoaldeko herri indigenek hizkuntzarekin eta identitatearekin dituzten bizipenak hemengoekin partekatzeko asmoz, Truke Programaren 4. ekitaldia jarriko du abian gaur Garabide elkarteak.

**Zeintzuk dira aurtengo nobedadeak?**

Nahiko espezifikoa izango da aurtengo Truke Programa. Hizkuntzen estandarizazioan diharduen jendea etorriko da. Azken baten, duela 50 bat urte hemen egon ginen bidegurutzearen aurrean daude zenbait tokitan eta garai hartako zenbait protagonistarekin (Joseba Intxausti, Xabier Kintana, Jean Haritschelhar...) eta gaurko adituekin (Patxi Goenaga, Koldo Zuazo, Lourdes Oñaederra...) hemengo esperientzia ezagutzeko aukera izango dute eta gu haiena.

**Nortzuk dira gonbidatuak?**

Hizkuntza gutxituak dituzten herrietako zortzi ordezkari izango dira gurean abenduaren 2ra bitartean: Guatemalako maiak, Ekuadorko kitxuak eta Bolibiako aimarak. Hizkuntzalari, irakasle eta ikertzaile profiletako jendea da eta saio gehienak Eskoriatzako Huhezi fakultatean izango dira. Publikoari begira, hainbat ekitaldi ibarrean egingo dira: gaurko harrera Oñatin, mahai ingurua Biteri egoitzaren aretoan Arrasaten eta agurtzeko jaia Eskoriatzan. Jardunaldi trinkoak izango dira. Era berean, Euskal Herriko hainbat bazter ezagutuko dituzte Amerikatik datozenek, aurreko urteotan egin dugun moduan.

**Zelan baloratzen duzue orain arte egindakoa?**

Oso positiboa izan da. Trukeez aparte, azken hiru urteotako proiektu konkretuak bultzatzen gabiltza: maputxeen kasuan, hiztun sareak sortzen; Ekuadorren komunikabideak eta helduen alfabetatze taldeak bultzatzen eta beste hainbat.

# 'Jangela Solidaria'k 600 euro batu ditu Arrasaten

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Wukroko (Etiopia) 500 neskamutiko umezurtzi bizitza duin bat izateko beharrezkoak dituzten baliabideak ematea da *Jangela Solidaria* gobernuz kanpoko erakundearen helburua. Angel Olaranen proiektua laguntzeko sortu zen; Aita Zurien misiolari hernaniarra da Olaran eta 1992az geroztik dihardu lanean herrialde hartan.

Eritrearekin izandako gerraren eta hiesaren ondorioz guraso barik geratutako umeei laguntzeko, *Jangela Solidaria*ko kide eta lagunak Sebero Altuben izan ziren zapatuan. Informazioa banatu, bazkideak bilatu eta kamisetak eta liburuak saldu zituzten, eta pozik geratu ziren izandako harrerarekin. Argiñano, Arzak, Subijana... izen handiko sukaldariek egin dute bat ekimenarekin





JMA enpresak teknologia berria garatu gura du sektorean berrindartzeko. | JMA

# JMAk sei milioi inbertitu ditu lidergoa sendotzeko

## Teknologia berri bat garatzen ari dira I+Gn, estetikoki baliagarriak ez diren piezak identifikatzeko

**LANDER MUÑAGORRI** | BERGARA

Arrasateko JMA Alejandro Altuna enpresak sei milioi euroko inbertsioa egin du azken bi urteetan prozesuen automatizazioa eta produktuen garapena bultzatzeko. Era horretan, enpresak 1997an ikerkuntza eta garapenaren (I+G) alde eman zuen apustuari jarraipena eman dio. Era horretan, egungo krisiari aurre egiten ari zaio, Arrasateko enpresak aditzera eman duenaren arabera.

Gaur egun, giltzez gain, JMA Alejandro Altunak bikoizketa makinak, telemandoak eta gisa horretako makinak egiten ditu. Maila honetan eman den pausu garrantzitsuenetako bat *transponder* teknologiaren garapena izan da, hau da, ibilgailuen giltza gehienetan txertatuta datozen gailu elektronikoen garapena.

**Aldundiaren laguntza**

Enpresa arrasatearrak automobilgintzara zuzendutako proiektu berri bat jarri du martxan. Gipuzkoako Foru Aldundiak Krisiaren Aurkako 2010 Planean txertatu du, eta JMAk 350.000 euroko inbertsioa egin berri du. Horren arabera, makina berri bat garatu dute, non estetikoki baliagarriak ez diren piezak identifikatzeko gai den. Aurreikuspenen arabera, proiektu hori 2011ko otsailerako egongo da amaituta.

Azpimarratu behar da, gaur egun ez dagoela gisa horretako makinarik merkatuan. Era horretan, makina hau garatzen denean, JMA automobilgintzako bezeroen aurrean erreferente bihurtuko da. Era horretan, sektorean duen lidergoa mantentzea lortuko du.

Arrasateko egoitzan 200 pertsonak egiten dute lan, gaur egun. Horrez gain, beste lau planta dauzka Mexiko, Txina, Argentina eta Italian; baita beste zazpi filial ere. Guztien artean, 450 milioi giltza egiten dituzte urtean.

**DATUA**

**450**

MILIOI GILTZA URTEKO

JMA espainiar estatuan eta Europan erreferentzia bihurtu da datu hauekin.

**JMAk 1997an egin zuen I+G apustuari jarraipena eman dio proiektu berriak**

# Bergara-Irun gaseoduktoak gasaren trukea bikoiztu du

**L.M.** | BERGARA

Ia hiru urte behar izan dituzte Bergara-Irun gaseoduktoa zabaltzeko lanak amaitzeko. Orain, ingeneritza lan honi esker, lehen bidera zitekeen gas kopuruaren bikoitza garraiatu ahal izango da. Manuel Menéndez Naturgas Energiako presidenteak goraipatu egin du obra handi hau: "azpiegitura honek energia hornikuntza ziurtatzen du eta Penintsula eta Europaren arteko gas trukea indartu egingo du".

Bergara-Irun arteko gaseoduktoak gainera Gipuzkoako gas banaketaren kolapso egoera gutxitu egin duela adierazi zuen Fernando Bergasa Naturgas Energiako zuzendari nagusiak.

Gaseodukto berriak 90 kilometroko luzera dauka eta 70 milioi euroko kostua izan du. Orotara 37 herri zeharkatzen ditu, eta hiru zatitan eraiki da. Lehenengoa, Bergara eta Zaldibia artekoa; bigarrenean Zaldibia eta Villabona artekoa, eta azkena Villabona eta Irun lotzen dituena.

Lan hauek guztiak egiteko garaian, ingurumena berriztatzeko konpromisoa hartu dute. Hala, 370.000 metro koadro lur birlandatu dira, eta bertan 1.600 arbola landatu direla adierazi dute Naturgas Energiatik.

**Koldo Azkoitia** | Garapen Agentizako arduraduna

# "Formakuntza eta aholkularitza, giltza dira autoenplegu kurtsoan"

## Autoenplegu kurtsoa hasiko da gaur, eta iragan astean enpresen gida digitala aurkeztu zuten



Koldo Azkoitia enpresagintzarako gidaliburua eskuetan duela. | LANDER MUÑAGORRI

**L.M.** | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak autoenpleguaren inguruko ikastaro bat eskainiko du gaurtik hasi eta hilaren 26ra arte. Negozio ideia bat daukan orori enpresa berria bideratzeko aholkuak eskainiko dizkie bertan. Negozioa martxan daukatenei zuzenduta bestalde, enpresen gida aurkeztu berri dute. Sarean dago gainera, edonoren eskura.

**Zer da autoenplegua?**

Kontzeptu oso zabala da. Debagoieneko Mankomunitatean bi ardatz nagusi dauzkagu. Batetik langabetuen kualifikazioa, eta bestetik ekintzaileei eta enpresen ideia daukatenei laguntza ematearena. Bai proiektua egiterakoan, bideragarritasunari dagokionez, eta baita lehen pausuak ematerakoan ere. Eta hor kokatzen da enpresa ekimenerako zentroa. Eta galderari erantzunez, zer den autoenplegua? Norberak bere enpresa, autoenplegu eran edo enrpesa eran sustatzea eta eratzea, horixe da autoenplegua.

**Zein eratako jendea etortzen da era honetako ikastaroetara?**

Denetariko jendea. Esan behar da era honetako ikastaroak urtean bitan antolatzen ditugula. Gaur hasiko den ikastaro honetan, zein eratako jendea inguratu behar den zehazten dugu dagoeneko, ez baitago langabetuei bakarrik zuzenduta. Bultz-lan Consulting eta Diputazioaren programa baten barruan antolatuta dago, eta hortaz arriskuan dauden kolektiboentzako dago zuzenduta. Normalean ez da hala izaten ordea. Enpresa mundura hurbilketa bat ahalbidetzen duen ikastaro honetan, negozio ideia bat daukaten emakume langabetuak, iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langabetuak eta lehenengo lan bila dihardutent gazteak daude.

**Eta zer eskainiko diezue bertako ikasleei?**

Ikasle batzuk ideia garatuekin etortzen dira, eta horretarako behar duten formakuntza eta aholkularitza eskaintzen zaie. Hemendik irtendakoan jakin dezaten zer egin behar duten. Ideia horren garbi ez daukatenei bestalde formakuntza ere ematen diegu. Hortaz gain negozio ideiak sortzeko tailerrak ere antolatzen ditugu. Hala ere bakoitzak bere ideia eduki behar du.

**"Kurtsoa langabetuei eta gazte ekintzaileei zuzenduta dago"**

**Eta hala ez denean?**

Norberak bere afizioak, laneko esperientzia, edo egin dituen ikasketen arabera aukeratzeko aukera dauka.

**Debagoieneko enpresen gida ere jarri duzue martxan; bailarako enpresen kokalekua eta jarduna sarean ikus daitezkeela...**

Eskualdeko benetako datu base on bat edukitzea da helburua, enpresek egiten dutena erakutsiz. Orain arte eskualdean ez geneukan informazio bat eguneratuta, eta oso eskura dago jendearentzako. Gure helburuen artean dago gainera urtero enpresen egoeraren arabera berritzen joatea.

**Autoenpleguan dabiltzanek ere erabili ahal izango dute tresna hau.**

Merkatu azterketa bat egiteko erabili dezakete, esate baterako. Eskualdeko enpresen inguruko informazio iturri egokia izan daiteke.

## ZABALIK

**MANU ARREGI**
Ilatargi astronomia taldeko kidea
'http://goiena.net/iritzia/'



# Gaztelekuko Patxi

Bigarren aldia da gauza bera gertatzen zaidana: asko estimatzen nuen pertsona bat galdu eta hurrengo egunean GOIENAko abisua jaso, zutabe honetan idaztea tokatzen zitzaidala esanez. Ez naiz gauza arrarotan pentsatzen hasiko, baina eskertzekoa da halabeharrak, bigarrenez, nire omenalditxoa egiteko aukera eman izana.

Patxi Hipolito joan zaigu, Oñatiko Gaztelekua zabaldu zenetik bere burua izan dena. Gaztelekua zabalduaz bat etorri zen Oñatira bizitzera eta Donostiako oñatiarra bihurtu da urte hauetan. Oso erraza da Patxi definitzea. Kultura gizona zen, ekintzailea eta bizizalea.

Ez zuen Patxik Oñati bezalako herri itxi batean lurreratze erraza izango. Baina, bere lan isilaren bidez, laster irabazi zuen kolore guztietako jendearen estimazioa. Ekimen mordoa bultzatu ditu, ezagutu duzuenok ondo dakizuen bezala. Loratuko dute, datozen hilabeteetan, berak bultzatutako zenbait proiektu. Hainbeste ekimenen bultzatzaile izanda, hanka sartzeko beldurrez, gertutik bizi izandako bi adibide besterik ez; gutxik dakite, baina, bailaran gaur egun astronomia taldea badugu, berak orain dela sei bat urte niri botatako proposamenari esker dela. Eta astronomia talde horrek behaketa publikoetan erabiltzen duen teleskopioa badu, Oñatiko Udalari gure izenean eginiko dirulaguntza eskaerari esker da.

> **"Kultura gizona zen Patxi, ekintzailea eta bizizalea"**

Uztailean egon nintzen azkenekoz Patxirekin, Txaketuenian kafe bat hartzen. Ekimenez beterik zebilen, beti bezala. Iruña de Veleiara egingo zen bisitaldi batera gonbidatu ninduen eta horren ostean egingo zen bazkari eta bazkalosteko eztabaidara. Ezin izan nintzen joan, baina estilo horretako beste bat antolatzekotan geratu ginen, klima aldaketaren inguruan, eztabaidara Antxon Uriarte eta Iñaki Antiguedad gonbidatuz. Ez dakit horrelakorik inoiz egingo den, baina, zoritxarrez, bera ez da izango.

Mila esker egin duzun lanagatik, Patxi. Ohorea izan da zu ezagutzea.

## USTEAK USTE

**MIRIAN BITERI** | 'mbiteri@goiena.com'

# Gabonak iritsi dira

Gabonekin pentsatzen hasita egongo zara dagoeneko, ezta? Ni, behintzat, bai. Ezinezkoa da horien atzaparretatik ihes egitea. Telebistan oraindik perfume eta jostailuen iragarki gutxi ikus badaitezke ere, kalean edonon aurki daitezke Gabonekin lotutako elementuak: tabernetan saskiak topa daitezke, dendetako erakusleihoek garaiko dekoratuak dituzte eta kaleetan argiak jartzen hasi dira. Azken horren harira, badira hainbat egun telebistan ikusi nuela Londresen argiak piztu dituztela. Horrela jarraituz gero, hemendik gutxira uda partean hasiko gara Gabonekin pentsatzen. Agian, heldu egin da hori, Gabonetako Loteria uda ezkero eros dezakegu-eta.

## KALE INKESTA

### Zer iruditzen zaizu, adostasunik ez dagoen kasuetan, alfabetoaren arabera erabakitzea umearen abizenen ordena?



**BELEN GARTZIA**
OÑATI

Ez zait inporta. Ondo iruditzen zait abizenak aldatu gura dituenak aldatzea. Gure kasuan aitaren abizena jarri diogu; gainera, politagoa da.



**NAGORE ORUETA**
OÑATI

Ez diot garrantzirik ematen. Uste dut badaudela arazo larriagoak. Gure kasuan, alfabetikoki, aitarena izango litzateke lehena.



**IKER AZKARGORTA**
OÑATI

Nire abizena jarri diogu; amarena lehenengo jartzeak ez dit inporta; akaso, aitajaunari, bai (barrez). Garrantzi bariko gaia da.



**JOSEMI ELIZBURU**
OÑATI

Ergelkeria bat dela iruditzen zait. Ordenak ez du garrantzirik. Amaren abizena lehenengo jartzeak ez lidake inportako.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Espazioa

**Anjel Lertxundi**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

William Wellman zinegilearen *Yellow Sky* (Zeru horia) pelikulan, bi gaizkile –John Rusell eta Gregory Peck– sekulako basamortu baten aurrean daude. Harea eta gatza, ez daukate besterik begien aurrean. Hura zeharkatzen saiatzeak heriotza ia segurua du arrisku, baina basamortuaren beste aldean agure batek urrea bilatu du. Eta, gainera, bere biloba ilehori ederrarekin bizi da. Gregory Peck basamortua zeharkatu nahi du urreaz jabetu eta neska ilehoriarekin pasio kriminala asetzeko. John Russell-ek: "Erotuta hago! Gatzezko basamortu honek hirurogei milia ditik. Beharbada, gehiago”. Baina Gregory Peck-ek: “Espazio bat duk, eta espazioak gurutzatu egiten dituk".

Aste honetan, bi presidente ohi ikusi ditugu zinismo guztiz aitortzen moralaren eta demokraziaren espazioaren beste muturreraino iritsi zirela beren agintaldietan. Eta ez baitute damuaren arrastorik erakutsi, berriro zeharkatu dute ignominiaren basamortua.

# Gose taldea, berriro ere autoekoizpena

**Mikel Iturria**
http://eibar.org/blogak/iturri/

Esan bezala, Gose taldeak laugarren diskoa kaleratu berri du. [...] Laugarren disko hau, hirugarrena bezala, autoekoizpenaren bidetik etorri da, derrigorrean. Zergatik?

-Ines Osinaga: "Printzipioen deklarazio moduko bat da: industria negarrez dagoen artean, sortzaileok ez gaude geldi, eta ezin gara geldi egon. Euskal diskogintzan poltsikoak hustu egin dira agian, baina musikagintza ezin da horregatik gelditu".

-Iñaki Bengoa: "Autoekoizpena marroi bat da. Gu ez gaude militantziagatik autoekoizpenean; bizirik irauteko da".

-Ines Osinalde: "Duintasun kontua da".

-Bikoteak: "Ez dugu banatuko, ez duelako merezi. Gure aurreko disko guztiak agortu egin dira urtebetean; gurekin zenbakiak ateratzen dira, baina guk ez dugu hortik ezer jaso. Horregatik, ereiteko apustua egin dugu disko honekin". [...]

# Leire Olaberria, Londresera bidean urrea Polonian

**Raul Perez**
http://tropela.net/bloga/?p=5116

Leire Olaberriak handia egin du berriz ere. Polonian jokatu berri duen Europako Pistako Txapelketan gailendu da omnium modalitatean. Sei probek osatzen dute omnium-a: abiadazko itzulia -250 metro erlojuaren kontra-, puntuaketa, kanporaketa, jazarpena, scratch-a eta 500 metro erlojuz kontra. Sharakova bielorrusiarra eta Wojtyra poloniarra sailkatu dira bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

Ikaztegietako txirrindulariak sei urte baino ez daramatza txirrindularitzan –aurretik atletismoan aritu zen-, eta Beijingo Olinpiar Jokoetan brontzezko domina irabazi zuen. Bazirudien goia joa zuela, baina gaur bertan Donostian emandako prentsaurrekoan argi utzi du ilusioz gainezka dagoela datozen erronkei dagokienez eta ez du uste adina -33 urte ditu-traba izango denik. [...]

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana.
**Maketazioa** Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.000 ale.
**Difusioa:** 19.724 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Oscar Redondo** | Psikologoa

# "Norberarentzako ona dena aukeratzeko gai denak besteen partetik ere erabaki dezake"

- Onarpen pertsonala mugarritzat jartzen du Oscar Redondok gizartean hezi gaitezen
- "Haurtzaroan onartuak izan garen neurrian onartuko dugu gure burua", Redondoren ustez



Oscar Redondo, Eskoriatzako hitzaldia egin baino lehen. | LANDER MUÑAGORRI

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Abilezia pertsonalen inguruan hitz egin zuen orain dela gutxi Oscar Redondok Eskoriatzan egin zuen hitzaldian. *Nola hobetu ditzaket nire harremanak ni neu izateari utzi gabe?* izan zen landu zuen gaia. Norberaren izaera garatzeko zenbait pauta eman zituen, alboan dauzkagunak errespetatzen ikasita. Lahar irabazi asmorik gabeko elkarteko kide da Redondo. Irtenbide pertsonalizatuak ematen dituzte, betiere talde zehatz batzuetan arreta jarrita: adineko pertsonak, haurrak, gazteak eta helduak. Eskoriatzan egin zuen hitzaldian, helduei zuzendu zitzaien Redondo.

**Nola irits daiteke norbait den bezalakoa izatera?**

Lan pertsonal handia daraman prozesua dela iruditzen zait. Nire ustez, onarpenean dago funtsa. Hau da, pertsona bat haurtzaroan onartua izan den neurrian, bere burua ere onartuko du, eta horrek erabakiak bere kabuz hartzeko, den bezala agertzeko edo gainerakoek esango dutenari kasurik egin gabe bere iritzia plazaratzeko konfiantza eta segurtasuna ematen dio. Nire ustez, onarpena haurtzaroan konpontzen den zerbait da, eta, hala gertatzen ez den kasuetan, gainerakoen gustukoak izatea edo onarpena bilatzen saiatuko gara. Hau da, norbera den bezala agertzea zailagoa izango da. Horregatik, oso garrantzitsua da lan pertsonal hori burutzea, onartuak izan ez garen aspektu horietan guztietan sakontzeko. Hori esaten dudanean, gizartearen eraginari buruz ari naiz, gure garapenean zehar zuzenean eragin baitigu, eta gure nortasunarekin talka egiten aritzen baita.

Asertibotasunak ere zerikusia du, definitu egiten baikaitu. Pentsatzen duguna erakusteko eta gainerakoei mugak jartzeko gai gara, gure eskubideak defendatzeko edo gure iritzia emateko. Kosta egiten da asertibo izatea gainerakoek onar gaitzaten espero baldin badugu.

**Nola eragin dezake horrek gure adiskidetasun, bikote, inguru edo lanean?**

Nire ustez, positiboki. Pertsona batek, norberari lekua kentzen dioten introiekzio sozialak galtzen dituen heinean, den bezala onartuko du bere burua, eta libreki erabakitzeko aukera edukiko du. Era horretan, "norbaitekin ezkondu behar delako" baino gehiago, berak aukeratu duelako egongo da norbaitekin; lan batean gustura ez badago, bere ikuspuntua erakutsi ahal izango du, eta, behar bada, baita lana utzi ere. Galdera da ea norberak erabakitzen duen esaten diotenaren arabera edo besteengan pentsatuz egiten dugun gauza bat edo bestea.

**Zeri egin behar diogu muzin? Zertan aberasten gaitu?**

Aldatzen garen neurrian, beti galtzen dugu zerbait. Ziurrenik aldatzeko garaian, kontzienteki edo inkontzienteki konponduta dauzkagun gaietan sakonduko dugu. Orokorrean era ez mingarrian irtenbidea topatu diegun gaiak izango dira. Gisa honetako arazoetan sakondu eta konpontzeak askotan egoera horri bueltа ematea dakar, eta, noski, hori prozesu zaila da. Kasuren batean mingarria ere izan daiteke. Asertibitateak, ordea, nork bere burua biluztea dakar, eta horretarako pertsonalki lan egin izana beharrezkoa da, batez ere asertibitate hori erabiltzea asko kostatzen baldin bazaio pertsona horri.

**Autokontrol emozionala horretarako ezinbestekoa da?**

Nire ustez, autokontrola ez da beharrezkoa. Nork bere izaera garatzeko ezinbestekoa da emozioak askatzea, eta horretarako beharrezkoa da gure emozio hauek onartuko dituen pertsona bat izatea aldamenean. Figura hauek ez daudenean, profesional baten laguntza beharko du pertsona horrek. Asertibitateak emozioen adierazpenagatik egiten du apustu, eta hori funtsezkoa da.

> "12 urterekin izaera lehertzen da eta kuadrilan garatzen da"

> "Asertibotasunak pertsona bezala definitzeko balio dio norbanakoari"

**Nola lor daiteke garapen pertsonalaren eta gainerakoekin lor daitekeen garapenaren arteko oreka?**

Garapen pertsonalaren prozesuak nork bere burua ezagutzea dakar, eta horrek indar handia dauka. Bakoitzari beharrezko iruditzen zaiona, nahi duena, ustez ondo iruditzen zaiona egitea da garrantzitsuena, betiere inor mindu edo iraindu gabe. Albokoak dioenari kasurik egin gabe egitea litzateke egokiena, hura zure aita bada ere. Norberarentzako ona dena aukeratzeko gai den pertsonak gainontzekoen partetik ere erabaki dezake. Kasu horretan, erabaki horren erantzule bakarra izango litzateke, eta norbaiti laguntzea erabakitzen baldin badu, hark ez luke zorrik izan behar zurekiko. Honekin guztiarekin ez dut esan nahi guregan soilik pentsatu behar dugunik, baizik eta norberaren lehentasuna zein den erabaki dezagun, eta ekar litzakeen ondorioak gure gain har ditzagun.

**Koadrilak onuragarriak ala kaltegarriak izan daitezke?**

Koadrilak ezinbestekoak dira gizakiaren sozializatzeko prozesuren barruan. 12 urtetik aurrera sumendi bat bagina bezala lehertzen gara, eta koadrilaren barruan garatzen gara. Besteen keinuak kopiatzen ditugu, hizkera, arropa... Horretaz gain, gainerakoen onarpena bilatzen dugu, testuinguru horretan ezinbesteko garrantzia hartzen duena. Koadriletan paper ezberdinak betetzen ditugu: liderra, graziosoa, tontoa, ederra, itsusia... eta horiek beharrezkoak dira gure izaera garatzeko. Nerabezaroaren ondoren, gaztaroan koadrilak ezinbesteko babesa izaten jarraitzen du. Hala ere, bertatik lagun batzuk aukeratzen ditugu, norberaren sostengu lanak egingo dituztenak. Hemen asertibotasunak garrantzia hartuko du, emozioekin gertuko erlazioaren bidetik mantenduko baitugu harremana. Kasuren batean, familiarekin izan ditzakegun erlazioa baino garrantzitsuagoak izan daitezke, babes psikoemozionalari dagokionez, behintzat.


10 | GOIENA
10 urte zuen hitzekin asetzen
komunikazioan
egindako bideagatik
zorionak!
goiena
GIPUZKOA
zurekin, aurrera

HERRI ORDEZKARIAK

## Aitor Aginagalde | Herri Batasuneko (HB) zinegotzia Bergaran (1987-1993)

- 1987 urtetik 1991ra zinegotzi izan zen Jose Luis Elkoro alkate zela
- 1991tik 1993ra, Victoriano Gallastegi (EAJ) alkate zela, oposizioan
- Euskara batzordeburua izan zen; sasoi hartan jaio zen 'Berrigara' aldizkaria



Aitor Aginagalde, atzo, Bergaran ateratako argazkian. | ENEKO AZKARATE

# "Orduan ezagutu nituen Bergarako baserri eta auzo ia guztiak"

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Aitor Aginagalde (Bergara, 1961) zinegotzi izan zen Bergarako Udalean, sei urtez; Herri Batasuneko (HB) zinegotzi. Gobernuan egon zirenekoa agintaldi "gogorra" izan zela dio.

**Lau urte egin zenituen gobernuan eta beste bi oposizioan. Zela gogoratzen dituzu urte haiek?**

Oroitzapen onak ditut; lan asko egin genuen. Hauteskunde kanpainan auzorik auzo ibili ginen. Guk ez genuen ezer agindu nahi –proiektu hau edo bestea egingo genuela–, udalera lan egitera gindoazela izan ezik. Orduan aurkeztu zen beste talde bat, EMK ingurukoa, eta haiek zioten udalera "zirikatzera" zihoazela. Gu gindoazen lan egitera.

**Gorabeheratsua izan zen lehen agintaldi hura?**

Bai. EArekin hasi ginen gobernatzen, EAJ zatitu berria zen, baina agintaldi erdian-edo EAk kendu egin zigun babesa. Bestalde, EAJk oposizio gogorra egin zigun. Horretaz gain, hiru idazkari ezberdin izan genituen. Idazkariak oso garrantzitsuak dira udal baten jardunean eta guk hiru izan genituen.

**Ze adin zeneukan orduan?**

27 urte. Jose Luis Elkoro eta Jose Luis Irazabal izan ezik, beste zinegotziok gazte samarrak ginen, esperientzia gutxikoak: Jose Luis Garitano *Rossli*, ni neu… Anaje Narbaiza ere bazegoen eta hark bazuen esperientzia udalean, aurretik zinegotzi izandakoa zen-eta.

**Ze batzordetako buru zinen?**

Euskara batzordeburua nintzen ni. Baina liberatuta nengoen eta beste hainbat batzordetan ere parte hartzen nuen eta ardurak nituen gobernazioan, hirigintzan…

**Jardun euskara elkartea eta *Berrigara* orduan sortu ziren.**

Bai. Garrantzitsuak izan dira euskararen normalizazioan. Halere, uste dut Arrasateko AED, esaterako, modu natural eta espontaneoagoan sortu zela; Mondragoeko eredua hona ekarri zen.

## "Zaila izan zen: hiru idazkari ezberdin izan genituen agintaldi berean..."



Elkoroberezibar (Berrigara) eta Elkoro alkatea, 1991n. | ARTXIBOA

Errotaldeko kultura etxea ere geu agintean ginela inauguratu zen; kartzela zaharra berriztatu zen, Mankomunitateko Lanbide Hastapeneko taldeak, hain justu ere; baserri auzoetako bideak konpondu eta porlana bota zen, eta orduan ezagutu nituen Bergarako baserri ia guztiak… Baina ez dut gustuko merituak nabarmentzea.

**Une garrantzitsuren bat gogoan?**

Ekimen polit eta arrakastatsua egin zen: Bizi alternatiboa izenekoa, Lanbide Hastapenean zihardutenekin batera. Drogentzako alternatibak bazeudela erakustea zen helburua. Kultur ekimen ugari antolatu ziren eta talde eta jende askok hartu zuen parte. Domeka zen, euria egin zuen eta plaza plastikoz estali zuten.

**Gaurko Bergarako alkatea –Agurne Barruso– zinegotzi irten zen, ezta?**

Bai, 19 urte izango zituen eta Gasteizen ikasten ziharduela-eta, gutxira, zinegotzi kargua utzi eta *Rossli*-k hartu zion lekukoa.

**Jose Luis Elkoro HBko politiko garrantzitsua zen orduan.**

Esaterako, Espainiako senatari izateko aukeratua izan zen 1989-ko hauteskundeetan eta sasoi hartan gertatu zen Alcalako atentatua; Josu Muguruza hil eta Iñaki Esnaola larri zauritua gertatu zenekoa. Jose Luis haiekin zen afaltzen, tiroketa gertatu zenean; txiripaz irten zen. Orduko egoerak eta gaur egungoak badute antzekotasunik Jose Luisendako, ezta?



HERRIAK

# Euriarekin beldurtu barik irameta dotorea egin zuten San Milixanetan

▸ Eibartik ekarritako idiek gurdikada ira eroan zuten plazara bisitarien aurrean meta egiteko
▸ Pilotalekua dagoeneko itxi dute eta artisauek eta bisitariek izugarri eskertu zuten

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Euri giroari aurpegi ona erakutsita ospatu zuten gatzagarrek atzo, San Milixan eguneko XVIII. feria. Debagoieneko bisitari asko hurreratu ziren –nahiz eta gehiago espero antolatzaileek–, eta giro polita topatu zuten.

Santa Kolunba ermita inguruan pilatutako ira gurdian hartu eta pauso bizkorrarekin eroan zuten idiek plazaraino. 600 kilo inguru zituen Eibartik ekarritako idi bakoitzak. Gurdiko irarekin meta egiten hasi ziren gero bost lagun: "Jakinez gero ez dauka zailtasunik, eta gu asko egindakoak gara", argitu zuten. Orain, baina, Leintz Gatzagan ez dago halako metarik. Ikusmin handia sortu zuen baserritarren lanak eta ikusle asko elkartu ziren pilotalekuko aterpean; baita argazkiak ateratzen ere.

**Pilotalekuan berotan**

Bien bitartean, pilotalekuan elkartutako 15 artisauen lanak ikusten eta erosten zeuden bisitariak: beirarekin , egurrarekin eta paperarekin egindako lanak, xaboi naturalak, pilotak… Eta Sorginak emakume elkarteko kideek egindako taloek ez zuten hutsik egin, beste behin. Aurten, gainera, inoiz baino gusturago egon dira guztiak; izan ere, pilotalekuaren berritze lanei esker, dagoeneko itxita dago kristalezko hormarekin. Larruaren gaineko tailerrean, ostera, umeek jardun zuten lanean gustura baino gusturago.

Gatz Museora ere iritsi ziren bisitariak eta, Aitziber Gorosabel arduradunaren azalpenekin, gatzartuaren gaineko erakusketa ikusteko aukera izan zuten.



Idiek eroandako gurdiko irak hartu eta meta egiten bost lagun Leintz Gatzagako plazan, atzo eguerdian. | MIRARI ALTUBE



**JUAN JOSE ITURBE**
ARRASATE

Irametak egiteko ohitura galduta dago eta ondo deritzot halako erakustaldiak egiteari, batez ere gazteek ikus dezaten. Eguraldiak gehiegi ez lagundu izana pena da.



**MIGEL ANJEL AZKOAGA**
LEINTZ GATZAGA

Meta asko egindakoak gara gu eta ondo ezagutzen ditugu gurean, baina orain ez dira erabiltzen. Erakustaldi polita egin dute plazan, irak idi-gurdian ekarrita.



**IMANOL ARANBURU**
ARRASATE

Hirugarren aldiz nator feriara, baina aspaldian egon barik nengoen. Jende gehiegi ez da pilatu baina halako feriak ondo datoz produktuak erakusteko.



**DANIELA LARRUZEA**
LEINTZ GATZAGA

Urtero legez taloak egiten gaude Gatzagako emakumeok. Esan izan digute hemen bezalako talorik ez dutela beste inon jaten… Ez dakit ba, eskua izango da.



Bisitariak Gatz Museoan, Aitziber Gorosabelen azalpenak entzuten. | M.A.



Sorginak emakume elkarteko kideak taloak egin eta egin, pilotalekuan. | M.A.


Marilyn Monroe.


Euskara elkarteetako ordezkariak.


Estepan Plazaola, Agurne Barruso, Maria Jesus


GOIENAko langileak.

# Zorionak zuei!

Hainbat esparrutako ordezkariak izan ziren eguenean GOIENAren 10. urteurren jaialdian; hunkigarria eta berezia izan zen ekitaldia

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL / JULIO CALLEJA


Osintxuko dantza taldea; Manex Alberdi dantzari gaztea.


Plazaola euskal makilarekin.


Amaia Antzokiko aretoa jendez lepo beteta.


Ekitaldiko irudia; eskuma aldean, Goiatz Arana

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Herritarrak, euskaltzaleak eta euskara elkarteetako eta instituzioetako ordezkariak elkartu ziren eguenean GOIENAren 10. urteurren jaialdian. "Oso ekitaldi hunkigarri eta polita"; "Oso gustura egon gara"; "Beste hamar urte gutxienez bai, ezta?"; "Segi aurrera!"; "Zorionak!"… halako berbak izan ziren ekitaldiaren amaieran entzun zirenak.

Denboraz iritsi ziren gonbidatuak Amaia Antzokira. **Andres Osa** *Sakona* izan zen ailegatzen lehenengoetarikoa. Ondoren, poliki-poliki beste guztiak iritsi ziren. Gaur egungo Debagoieneko alkateak elkartu ziren sarreran: **Ino Galparsoro**, **Agurne Barruso**, **Lourdes Idoiaga**, **Inaxio Garro**, **Pedro Lasagabaster**, **Oxel Erostarbe** eta **Eusebio Villar**. Aramaioko alkate **Asier Agirre**ren ordez **Martin Arriolabengoa** zinegotzia joan zen; eta, Antzuolako alkate **Pedro Iturbe**ren ordez **Patxi Olabarria** zinegotzia.

## Orain dela 10 urteko alkateak

Orain dela 10 urteko alkateek, GOIENA sortzen lagundu zutenek ere GOIENAren urteurren jaialdian egon gura izan zuten: **Xabier Zubizarreta**, **Angel Bergaretxe**, **Victoriano Gallastegi**, **Mireia Unamuno**, **Patxi Basauri** eta **Edorta Zubizarreta**k, adibidez.

## Jaurlaritza eta Diputazioa

Debagoieneko mugetatik haratago, Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariek ere zorionak eman eta GOIENAren ondoan egon gura izan zuten. Jaurlaritzatik Hizkuntza Politikarako sailburuorde **Lourdes Auzmendi** izan zen, eta baita **Begoña Muruaga** Euskara Sustapenerako zuzendaria ere. Auzmendik berba onak izan zituen: "GOIENAk bide luzea egin du, ongi egindako bidea. Komunikabide batendako erronka da hizkuntza zela erabili, eta GOIENAk bete-betean asmatu du zuzentasunean baina tokiko ñabardurekin; GOIENAk beti gertu izango gaitu erronka berrietan laguntzeko".

Diputazioko ordezkariak, ostera, **Iñaki Ugarteburu** Kirotetako zuzendaria, **Maria Jesus Aranburu** Kultura eta Euskara diputatua eta **Aritz Solupe** Kultura Sustapenerako zuzendaria izan ziren. "Aldunditik inbidia pixka batekin ikusten dugu inguru hau; saiatu arren, oraindik ez dugu ikusten momentua beste bailara batean halako batasuna eskatzen duen proiektu bat gauzatzeko", azaldu zuen Aranburu diputatuak Amaia Antzokiko oholtza gainean.




Aranburu eta Lourdes Auzmendi.


Arritxu Barruso kazetaria eta Jon Odriozola.


Mari Karmen Arrieta eta Oskar Elizburu kolaboratzaileak, oroigarriarekin.




GOIENAKO hainbat langile *photocall*-ean.


Miren Arregi eta Kepa Errasti.


eta Xabier Urtzelai.


Mikel Larrañaga, Mireia Larrañaga, Peio Garitano eta Joxe Mari Larrañaga.


Irizar, Zubizarreta eta Mikeo, Muniategiandikoetxearen lanarekin.



GOIENAren irudi berria.

**Hainbat esparrutako kideak**

Beste esparru batzuetako ordezkariak ere izan ziren; kirol eta kultura esparruetako ordezkariak, besteak beste. **Iban Velasco** txirrindularia, **Jon Urtzelai** futbolaria eta **Jon Odriozola** Bidelaneko kirol zuzendaria, kirolari profesionalen artean. Kirolaria ez, baina ETBko kirol kazetari **Asier Aranguren** ere Amaian izan zen; eta, baita **Alberto Gorritiberea** kazetaria ere.

Beste hedabide batzuetako ordezkariak, besteak beste, EKTko ordezkari **Joxean Lizarribar** eta **Joanmari Larrarte**; eta, Noticias taldeko ordezkariak ere jaialdian izan ziren.

**Ekitaldia**

Umorea, musika eta dantza izan ziren **Goiatz Arana** eta **Xabier Urtzelai**k aurkeztutako jaialdiaren ardatz. **Kepa Errasti**k barre algarak eragin zituen komertzial saileko langile moduan; baita San Migel jaietako programa berezia egitera joandako kazetaria paperean ere. Momentu hunkigarriena, baina, Marilyn Monroek *Happy Birthday, Mr. President* **Estepan Plazaola**ri abestu zion unea izan zen. Plazaolarendako sorpresa izan zen; **Agurtzane Gaintzarain** GOIENAko giza baliabideetako eta administrazioko zuzendariaren eskutik euskal makila jaso zuen, eta baita GOIENAko lan taldearen eskerrik beroena ere. Gatibuko Alex Sardui **Goio Arrieta**ren eskutik etorri zen Amaiara. Giroa berotzen lagundu zuen *Harri Irratixe*ko artistak. Musiraka Osintxuko dantza taldeak, berriz, GOIENAren irudi berriari

*14. orrialdean, jarraipena.*



*13. orrialdetik dator.*
pasoa eman zion; talde polita eta ilusioz betea dela erakutsi zuten. Danbakako azken irabazle The Wet Band taldeak zuzeneko musikarekin borobildu zuen saioa.

**Kolaboratzaileei eskerrak**

Zer izango litzateke GOIENA kolaboratzaile barik? Horiei ere eskerrak eman zizkieten eguenean. Taula gainera igo ziren **Mikel Lezamiz**, **Migel Angel Elkoroberezibar**, **Eusebio Iñarrra**, **Oskar Elizburu**, **Andres Osa *Sakona***, **Mari Karmen Arrieta**, **Iñigo Biain**, **Felis Beltran de Heredia**, **Espe Lizarralde** eta **J.J Arrieta**. Euren idatzi eta hitzekin osatzen eta aberasten dute GOIENA.

Guztiek jaso zuten **Manu Muniategiandikoetxea** artistak egindako marrazkia. Jaialdia amaitzeko, GOIENAko langileek egindako *lip dub*-a eskaini zuten. Urtemugarako propio egindako abestiarekin egin zuten. Abestiaren musika **Arkaitz Biain**ek egin du; eta, berbak, **Unai Iturriaga**renak dira. Amaia Antzokira joandakoek, gainera, oparia eroan zuten etxera: GOIENA papera, labetik atera berria eta *Komunika* abestiaren CDa.

## GOIENAren irudi berria aurkeztu zuten ekitaldian

## Umoreak, musikak eta dantzak lekua izan zuten Amaian

## *Komunika* abestia sortu dute urteurren ekitaldirako


Josu Txintxurreta kameralaria.


Debagoieneko alkateak eta euskara elkarteetako ordezkariak.


Anton Inza Aloña Mendi elkarteko presidentea GOIENA papera jasotzen.


The Wet Band talde mutrikuarra.


Mari Karmen Arrieta, Pedro Lasagabaster eta J.J. Arrieta.


Edorta Arana, Itxaro Zubillaga eta Nerea Artola.


Jon Berezibar GOIENAko langilea *goiena.net* elikatzen.


GOIENA papera irakurtzen Mireia Unamuno eta Marijo Deogracias.


Anaje Narbaiza.


German Muruamendiaraz, Victoriano Gallastegi eta Andres Osa *Sakona*.


Eneko Azkarate eta Mikel Irizar.


Javier Retegi.


Oihane Agirre, Jone Inuntziaga eta Oihane Isasi GOIENAko langileak.


Nekane San Migel, Joxe Etxeberria eta Iñigo Iñurrategi.

ANTZUOLA

# Independentzia Eguneko menua: tortilla, babarrunak eta jai giro aparta

Pilotalekua bete egin zen eta 90 lagun inguruk babarrun jana egin zuten zapatuan, Antzuolan



90 lagun inguruk babarrun jana egin zuten pilotalekuan. | JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Giro ezin hobeak lagunduta, jai parte-hartzailea egin zuten antzuolarrek. Hain zuzen ere, helburua horixe dela azaldu ziguten Gazte Asanbladako kideek: "Gure asmoa da gazteek parte-hartzea, bai antolakuntzan eta baita festan ere".

Tortilla txapelketan 11 taldek hartu zuten parte. Bakoitza bere sekretuekin tortillarik goxoena egiteko prest azaldu zen. Hori bai, inork ez zigun kontatu nahi izan egindako tortillaren sekretua. Herritar asko gerturatu zen lehiaketa ikustera eta tortilla zatitxoren bat dastatzera. Baina sabelean tokia utzi beharra zuten, eguerdian babarrun-jana zuten-eta pilotalekuan.

Goizeko seietatik, 10 kilo babarrun prestatzen, Joxe Ramon Peñagarikano ikusi genuen. Peñagarikano eskarmentudun sukaldaria da eta badaki babarrun xamurrak egiteko trukurik onena poliki-poliki eta pazientziaz egitea dela, mimatzea. "Babarrunak bere puntuan egon daitezen, goiz jaiki behar da eta poliki-poliki su apalean egon behar dira. Eta noski, laguntzeko, txarri saiheskia, txorizoa, azalorea eta odolostea".

**Gazte Asanbladakoak gustura**

Pozik agertu ziren antolatzaileak, herritarren parte-hartzea helburu duen jaiak harrera ona izan zuela ikusirik: "Antzuolar askok lagundu du eta parte hartu du. Pozik gaude jendearen erantzunarekin", azaldu digute Gazte Asanbladako kideek. Urte batzutan ospatu gabe izan den Independentzia Eguna berreskuratu dute antzuolarrek; iaz errekuperatu zuten, eta aurten bigarren aldiz ospatu, orduko arrakasta ikusita.

Gainera, laster, antzuolarrek gaztetxe berria izango dute herrian. Eraikinean zenbait lan egin beharko dituzte eta, horregatik, Gazte Asanbladakoek dei egin dute, laguntzeko prest leudeken herritar guztiak animatu daitezen.



**DEIANE, LEIRE, GARAZI, ANDONI**

Irabazteko asmoz hartu dugu parte. Arrautzak eta patatak Antzuolakoak dira, baserrikoak! Horrekin seguru irabaziko dugula. Egitarau polita daukagu: bazkaria, bertsoak, kontzertuak...



**OLAIA, ITXASO, EDURNE**

Zein den sekretua? Ez daukagu... beno, praktika pixka bat izatea. Tipula eta piperrekin egin dugu tortilla. Ez diogu aparteko ezer bota baina oso goxoa atera zaigu! Horrelako ospakizun eguna oso ondo dago antzuolarrendako. Herriari bizitasuna ematen dio jai egun honek.



**HODEI, MIKEL, IMANOL**

Independentzia eguna mantentzea ondo dago. Egun polita da; goiz goizetik kalean jai giroan... primeran! Tortilla txapelketan ere hartu dugu parte (kar, kar). Hasieran ez zeukan itxura oso ona, baina, azkenean ondo atera zaigu. Ondoren, babarrun jana eta kontzertuak, eguna borobiltzeko!

ARAMAIO

# Trikiti doinuekin herria dantzan barikuan

Debagoieneko Trikitilari Eguna Aramaion ospatuko da maiatzaren 7an

**MAIDER ARREGI** | ARAMAIO

Egubakoitzean, trikitixa doinuak izan ziren nagusi Aramaion. Plaza beteta, jende asko animatu zen herriko trikitilari eta dantzariekin dantzan egitera. Trikitilariek lagunduta egindako kalejiraren ostean, buzkantza, txorizoa eta ardoa banatu zituzten, eta berehala agortu ziren; jende asko zegoen seinale.

Trikitixa taldekoak gustura, herritarrek eskainitako berotasunarekin: "Jende dezente animatu da dantzara eta plaza bete egin da". Gainera, datorren urtean Debagoieneko Trikitilari eguna Aramaion egingo dutela ere aurreratu ziguten; maiatzaren 7an izango da trikixa festa.

Hala, trikitixa taldea sustatzeko eta ibarreko trikitixa egunerako finantziazio bide gisa, Realeko, Athleticeko eta Juan Martinez de Irujo pilotariaren kamisetak zozkatu zituzten.

**Gantzagarrak ere jaietan**

Barikuan, kantu afaria egin zuten Gantzagako auzotarrek. Ume nahiz heldu, guztira 30 lagun aritu ziren euskal kantuak abesten. Umorea ez zitzaien falta izan eta *El Rey Salomón* moduko abestiak barre algara ederrak eragin zituen. Zapatuan, Aretxabaleta Abesbatzak kontzertua eskaini zuen. Sorpresak ere izan ziren: auzotarrek abesbatzaren 30. urteurrena ospatzeko, bertsoa bota eta lore sorta eskaini zioten. Jarraian eta lehen aldiz, txapel poteoa egin zuten. Irudimen handiz egindako txapelak buruan jarrita, poteoan ibili ziren auzotarrak.



Aramaioko trikitixa taldeak giroa berotu zuen barikuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Lehen aldiz txapel poteoa egin dute Gantzagako auzotarrek. | JOSTETXO ARANTZABAL

Gerardo Uribesalgo | Arrasate Kristaldegia

# "Esaten dute ez dagoela halako markesina inteligenterik munduan"

▸ Arrasate Kristaldegiak egiten duen bigarren markesina inteligentea da

▸ Lau tekla dituen teklatua dauka sartuta, kristal barruan

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Markesina berezia ipini behar dute Nafarroa etorbidean, Zaldibar oinezkoen ibilbide berria amaitzen den lekuan, justu. Arrasate Kristaldegiak egindako markesina da. Markesina inteligentea dela dio Gerardo Uribesalgok (Arrasate, 1967), Arrasate Kristaldegiko ugazabetako batek.

**Zer du markesina inteligenteak?**

Dauka teklatu handi bat, lau teklarekin: batek autobusen ordutegiak esaten ditu, euskaraz; beste batek gaztelaniaz; hirugarrenak guardiako farmazien informazioa ematen du (zein dagoen guardian eta telefonoa); eta laugarrenak, taxien ordutegia eta haien telefonoa, larrialdien telefonoa eta Udaltzaingoarena. Hori guztiori entzuten da ahots bitartez, emakume eta gizonezko banaren ahotsarekin.

**Zelan egiten du hori?**

Ordenagailua du sartuta. Microsoft Mondragonek egin du softwarea, eta horrekin eta bozgorailu batzuekin esaten du informazio guztia.

Informazioa berritzeko (ordutegi berriak, adibidez), pinganillo berria sartuta, kito.

Autobusen informazioari dagokionez, lehenengo ematen du markesina horretan geratzen diren autobusen gaineko informazioa eta gero Arrasateko urbanoaren gainekoa; edozelan ere, gura den informazio guztia sar daiteke.

Bestalde, jendea markesina barrura sartzen denean, musika entzuten hasten da.

**Kristala ere berezia da...?**

Bai. Kristal barruan tela dauka, ohar guztiak kristal barruan daude sartuta, inork ez kentzeko. Eta teklatua ere barruan dago. Gainera, segurtasunezko kristala da, oso-oso gogorra. Jarlekua ere kristalezkoa da. Andre batzuek diote hotza dela, baina gustatu egin da, jende nagusiarekin pentsatutako altuera eman eta erraz altxa daitezkeelako. Bestalde, barruan duen telari esker, hautsa ez da igartzen, oso garbia da eta argitasun handia ematen dio.

**Noiz jarriko duzue?**

Oraingo astean, seguru aski, martxan egongo da. Entxufatuta funtzionatuko du, ez prototipoak moduan; hark eguzki plakarekin eta eolikoarekin funtzionatzen du. Izan ere, prototipoa baino merkeagoa da (18.000 euro balio du, baina Udalak 10.000gatik erosi du). Dena den, hau elektrikoa izan arren, oso-oso kontsumo txikia dauka. Argiak, adibidez, led argiak dira.

**Arrasateko Udalarendako bakarrik prestatu dituzue markesinak?**

Jende askok deitu digu, baina esan diegu itxaroteko bi markesina jarri arte (prototipoa uztailean ipini genuen, eta orain beste hau ipiniko dugu, elektrikoa). Gero etorriko dira bestelako udaletako ingurumen sailetatik ikusteko. Adibidez, Bartzelonatik deitu digute, suitzar batzuek ere deitu digute eguzki plakaren kontua asko gustatu zaie-eta...

**Zelan pentsatu zenuten halako sistema?**

Oso berritzailea da. Dirulaguntza eman ziguten Madrildik, teklatua egiteko. Egin genuen eta kristalean txertatu. Eta baditugu beste hiru gauza patentatzeko, ze markesina patentatuta baitago. Besteak joango gara kontatzen, patentatu baino lehen ezin da...

**Bada halako markesinarik munduan?**

Ba, esaten dute ezetz [Barre].

**Posible izango da, beraz, zuen asmakizuna mundura zabaltzea?**

Bai. Guk asmatu duguna da teklatu sentikorra, gorputzeko elektrizitatearekin funtzionatzen duena; hortaz, eskuarekin sakatzerakoan funtzionatzen du. Teklatu hori sar daiteke leku mordoan; adibidez, sukaldeko entzimeretan ipiniz gero, bertatik agindu ahal izango da ke-erauzgailua martxan ipintzea, argia ipintzea... edo ispiluan ipin daiteke eta bertatik argia piztu; igogailuetan...



Dunixi Uribesalgo, Gerardo Uribesalgo eta Lorenzo Manero, prestatzen dabiltzan markesinaren barruan. | UBANE MADERA

**"Teklatua oso-oso erraza da, eskua jarri, itxaron zarata egin arte, eta kito"**

**"Jendea markesina barrura sartzen denean musika entzuten da"**

**"Gu arrasatearrak gara eta Arrasaten ipini gura genuen, hemen hasi"**


GOIENA

## 1967ko kintoak giro ederrean ibili ziren

1967an jaiotako hainbat arrasatearrek ospakizuna egin zuten Garaia Berrikuntza Gunean Gureak taldekoek aurten zabaldu duten jatetxean. Jakinarazi dutenez, ederto ibili ziren aspaldiko kontuak gogoratzen eta espero dute datorren urtean ere elkartzea, ospakizuna ohitura bihur dadin. 40 lagun elkartu ziren mahairen bueltan eta afalostean talde argazkia atera zuten ospakizuna betikotzeko asmoz.

## Abaroako erretiratuek irteera egingo dute azaroaren 24an, Zugarramurdiko koba bisitatzeko asmoz

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du azaroaren 24rako. Elizondora joango dira eta irteeraren helburua izango da Zugarramurdiko koba eta sorginen museoa bisitatzea. Koba eta museoa bisitatzeaz aparte, Baztan hotelean bazkalduko dute eta bazkalostean hainbat ekintza egingo dituzte; bingoa, dantza eta opariak ez dira faltako. Gaur, hilak 15, eman behar da izena, 10:30ean. Izena eman dutenei hilaren 22an banatuko zaie autobuserako txartela, 11:00etan. Irteeraren prezioa 27 euro da. Bestalde, hilaren 22an egingo dituzten mahai-jokoetan parte hartu gura duenak asteon eman beharko du izena: eguena da azken eguna.

## Makatzena futbol talde ohiaren albuma atera dute, eta Ttukun fotokopia dendan dago eskuragarri

1974an sortu eta 1984an desagertu zen Makatzena futbol taldearen gaineko albuma atera dute. Hamar urte iraun zuen taldeak, baina arrastoa utzi zuen herrian, eta Roman Lopezek albuma atera du testuekin eta orduko argazkiekin. Albuma gura duenak Ttukun fotokopia dendan eska dezake.


Lopezen biloba, albumarekin. | GOIENA

# Musika Eskolako ikasle eta irakasleek eguenean ospatuko dute Santa Zezilia

Eguna ospatzeko, gazte bandak kalejira egingo du, 17:30ean, herriko kaleetan barrena

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Azaroaren 22an, gaur zortzi, Santa Zezilia eguna ospatuko dute musikariek. Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ere ospatuko dute, baina egun batzuk lehenago, hilaren 18an, egunenean, hain justu ere, Euskal Herriko beste hainbat musika eskolarekin batera.

Euren zaindariaren eguna ospatzeko, gazte bandarekin kalejira egingo dute, urtero bezala. 17:30ean abiatuko dira Musika Eskolatik eta herrian barrena ibili eta gero San Martin plazara joango dira. Banda gaztearen atzetik eskolako ume guztiak joango dira kantuan, eta baita irakasleak ere.

San Martin plazan eskolako bi abesbatzak emanaldia egingo dute: hasiberrien abesbatzak eta haurren abesbatzak, hain justu ere. 150 bat batuko dira eta saio txiki bat egingo dute. Emanaldia bukatu eta gero, txokolatea banatuko dute bertaratzen diren guztien artean.



Musika Eskolako gazte bandako kideak, kalejiran irten aurretik. | MUSIKA ESKOLA

**Udal Musika Bandak ere bai**

Musika Eskolakoez gain, Udal Musika Bandako kideek ere ospatuko dute Santa Zezilia. Hilaren 21ean ospatuko dute. 12:30ean, Udal Pilotalekuan kontzertua egingo dute eta han, Udal Musika Bandan 50 urte egin dituzten bi lagun omenduko dituzte: Jose Mari Arrondo eta Jose Mari Gonzalez musikariak, hain justu ere. Biei ala biei bandaren alde egindako lanagatik eskerrak emango dizkiete.

Kontzertua bukatu eta gero, Santa Zezilia ospatzeko urteroko bazkaria egingo dute taldeko kideek.

## Urteagako eta San Lorentzoko etxeetako zerrendak argitaratuta

M.B. | BERGARA

Urteagan eta San Lorentzon eraikiko diren etxe tasatuetarako zerrendak argitaratu ditu asteon Udalak. Urteagako etxe tasatuei dagokienez, 24 zozkatuko dira, trasteleku eta garajearekin. San Lorentzoko etxe tasatuen kasuan, 52 dira, horiek ere trasteleku eta garajearekin. Ikusgai daude *www.bergara.net*-en.

## San Joxepekoek Nafarroara irteera egingo dute 25ean

Azaroaren 25ean Nafarroara irteera egingo dute San Joxepe erretiratuen elkarteko kideek. Lizarrara eta Iratxera irteera egingo dute. Egun osoko irteera izango da eta izenematea zabalik dago, elkartearen bulegoan.

## OHARRAK

**1943AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 27AN**

Azpeitxi jatetxean egingo dute, 14:30ean. Izenematea da hilaren 24ra arte Arantza Askasibarri (943 76 16 13) edo Juan A. Fernandezi (943 76 53 22) deituta.

**1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA 21EAN**

Azpeitxi jatetxean egingo dute. Bazkariaren aurretik meza egingo dute, 12:30ean, San Pedro parrokian. Izena Intxorta tabernan eman behar da, 6 euro aurreratuta.

**1948AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 20AN**

Zabala jatetxean egingo dute. Harako urbanoa 21:00etan abiatuko da Santa Marina ostetik. Izena azaroaren 17a baino lehen eman behar da: 55 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

**1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA 21EAN**

Zumelaga jatetxean egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira hilaren 17rako Euskadiko Kutxan.

## Agorrosingo fitness aretoan hezitzailea egongo da egunero

M.B. | BERGARA

Agorrosin Ekintza Guneko fitness aretoan, eta zortzi orduz, egunero, begirale-hezitzaile bat egongo da. Haren egitekoa izango da herritarren ariketa fisikoaren inguruko aholkuak eta saioak gidatzea.

Erabiltzaileengana errazago hurbiltzeko, ikasturte honetan, bi hilean behin, ariketa fisikoaren inguruko gaiak jorratuko direla aurreratu dute Agorrosingo iturriek.

Azaro eta abenduan barrena, luzaketen inguruko edukiak landuko dituzte. Urtarrila eta otsaila bitartean, berriz, *Ariketa fisikoaren kontrola bihotz taupaden bidez* ikastaroa emango dute. Zerbitzu hori guztia abonuaren edota eguneko sarreraren barruan txertatuta dagoela aurreratu dute Agorrosinetik. Hau da, ez da ordainketa gehigarririk egin beharko, ez hezitzaileagatik ezta ikastaroengatik ere.

## AUZOKO PROGRAMA

**Esmeralda Mendezek asmatu du erantzuna**

Auzoko lehiaketako bigarren galderaren erantzuna asmatuta, Esmeralda Mendezek jasoko ditu Zabalotegiko ikuskizun baterako bi sarrera. Honekin, bukatu da Jardunek Udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa. Auzoko egitasmoa ezagutzera emateko egin dute lehiaketa hori. Datozen egunotan ekimen gehiago ere egingo dituzte.

auzoko
auzoko.topagunea.com

## TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENKARIA

# Ozaetako zubiagatik endredoa

Irakurle batek txistua helarazi digu Ozaetako zubia dela eta. Haren esanetan, badira hiru bat hilabete hainbat lan egiteko Ozaetako zubia itxita dagoela ibilgailuendako Zubiaurre–Martoko auzunera sartzeko. Irakurleak dioenez, endredo handia da bizilagunendako, autoarekin buelta oso handia eman beharra izaten dutelako etxera iristeko. Kexu honen bidez Udalari eskatu nahi dio obrak ahalik eta azkarren bukatzeko.



# Udalbatzak hiltegiaren kudeaketa publikoaren aldeko oniritzia eman du

- EAJ, Hamaikabat eta Oñati Ezkerretik azaldu ziren alde
- Zazpi udalerrik parte hartuko dute elkarte publikoan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Zubillagako hiltegia gestionatuko duen elkarte publikoa eratzea onartu du Udalbatzak.

Lourdes Idoiaga alkateak GOIENA telebistari egindako elkarrizketan azaldu zuen oso garrantzitsua dela zabalik eta aurrera bidean ikustea Zubillagako hiltegia. "Gainera, kontuan hartuta Oñatik 108 kilometro karratuko eremua duela eta lehenengo sektorearen garrantzia handia dela: ganaduzaleena, landalurrena...", azaldu zuen.

**Lau hiltegi batera lanean**

Gipuzkoako lau hiltegiak batera ibiliko dira lanean. "Hil, despiezatu eta komertzializatu. Jatorri jakin bateko ganadua dela jakinda merkaturatuko da okela", azaldu zuen Idoiaga alkateak. Izan ere, merkatal izaerako elkarte publiko bat izango da.

Udalbatzak elkarte publikoa eratzeko oniritzia eman du EAJ, Hamaikabat eta Oñati Ezkerretik taldeetako zinegotzien botoekin; PSE-EE abstenitu egin zen, eta PPkoa ez zen plenora azaldu.

**Zazpi udalerri**

Zerbitzu bateratu honetan zazpi udalerrik parte hartuko dute: Leintz Gatzaga, Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Antzuola eta Oñati.

Udal bakoitzak biztanle kopuruaren eta abelburu kopuruaren araberako diru ekarpena egin beharko du. Oñatik %13,08ko partaidetza soziala izango du eta hasierako ekarpena izango da 17.000 eurokoa. Biztanleei dagokienez, %12,2ko partaidetza izango du Oñatik; behi haizendei dagokienez %13,75; eta, ardi haziendei dagokienez %28,71. Azken datu hori gainontzeko herriena baino dezente altuagoa da. Oñatik 7.197 ardi hazienda dauzka.

DATUA

**150**

MILA EURO

Zatiketa gela egin eta atontzeko behar den dirua.

**Zatiketa gela jarriko dute**

Elkarte publikoa datorren urtarrilaren 1ean martxan jartzea espero dute. Orain arte eman izan dituen zerbitzuez gain –abereak hil eta garraiatu–, zatiketa zerbitzua ere emango du aurrerantzean hiltegiak. Horretarako, zatiketa gela bat egokitu beharko dute.

Asmoa da sozietatе publikoa autofinantzatua izatea. Izango du: gerentea, administraria, lineako arduraduna eta sei abere-hiltzaile. Garraiolariak azpikontratatuak izango dira.

Zubillagako hiltegia Osinurdin parajean dago kokatuta eta 10.127 metro koadroko azalera hartzen du. Eraikin nagusiak 1.206 metro koadroko azalera hartzen du.

## Eusko Ikaskuntzako webgunean Oñatiko argazki zaharrak ikusgai

A.E. | OÑATI

Aurrerantzean, Udal artxiboan dauden argazki zaharrak interneten egongo dira ikusgai. Udalak Eusko Ikaskuntzarekin batera digitalizatu egin ditu argazkiok, eta orain interneten daude.

**Euskomediaren ataria**

Web orrialdea da: *www.euskomedia.org/galeria*. Argazki guztiek deskribapen txiki bat duten, baina Udal artxiboko arduradunek esan dute "informazioa osatu" egin behar dutela oraindik.

Oñatiko webgunetik ere sar daiteke: *www.oinati.net* atarian, zerbitzuak saila klikatu, eta ondoren artxiboa saila eta bilduma saila. Bestalde, argazkiak daude Udal artxiboan, Udaletxeko goiko solairuan.



Foru enparantza, arkupeak. | UDAL ARTXIBOA

## Oñati Ezkerretik taldeak antolatuta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak ulertzeko hitzaldia

A.E. | OÑATI

Emakumeen aurkako tratu txarren aurkako egunaren harira hainbat ekintza antolatu ditu Oñati Ezkerretik taldeak. Horien artean dago, eguaztenean, hilak 17, Pilar Legarra (1960, Asteasu) psikoterapeutak egingo duen hitzaldia. *La afectividad de la mujer maltratada. ¿Porque no pueden separarse de su maltratador?* izango da hitzaldiaren gaia.

**Emakumeak ulertzeko gakoak**

Legarrak azalduko ditu tratu txarrak jasate dituzten emakumeak ulertzeko gakoak. Psikoterapeutaren ustez kasu horietan "dena ez da gorrotoa", oinarrian gaizki ulertutako maitasuna dagoela dio. Beldurraren zamaz eta pertsonaren suntsitzeaz jardungo du, eta horrelako kasuetan emakumeei nola lagundu azalduko du.

Hitzaldia izango da 19:00etan Kultura etxean. Gainera, hilaren 27an kontzentrazioa deitu dute Udaletxe aurrean, 13:00etan




Hitzaldiko kartela. | OÑATI EZKERRETIK

## Irteera egingo dute zapatuan gaztetxoek Debara zezentxoak ikusi eta paintballean jolasteko

A.E. | OÑATI

Gaztelekuko Topalekuak antolatu du irteera, egun osokoa, Debara. Gaztetxoek aukera izango dute herriko jaietan ikusten ditugun zezentxoak nondik datozen ikusteko. Izan ere, Debako Saka baserrira bisita egingo dute.

Baserri horretan, sokamuturrean erabiltzen dituzten zezentxoak hazten dituzte. Sakan ikusiko dute zela zaintzen dituzten zezentxoak, nola garraiatzen dituzten, eta baita abeltzaintza mota horrek dituen ezaugarriak ere.

**Paintballean jolastera**

Egunaren bigarren zatian, arratsaldean, ekintza dibertigarria antolatu dute Topalekukoek. Debaventura gunera bisita egingo dute eta han paintball jolas berezia egiteko aukera izango dute. Paintballean bi talde lehiatzen dira, nor baino nor gehiago, "gezurretako armekin". Pintura erabilita aurkariak kanporatzea da jolasaren helburua.

**Gurasoen baimena**

Zapatuko irteeran parte hartu gura duenak izena eman beharko du aurrez Gaztelekuan bertan. Gurasoen baimena ezinbestekoa izango da irteerara joateko. Bestalde, norberak eraman beharko du egun horretarako bazkaria. Topalekukoek gaztetxoak animatu gura dituzte antolatu duten irteeran parte hartzera.

## OHARRAK

**LEHIAKETA**

Aloña Mendiko mendi sailak abian du Oñatiko VII. mendia eta natura argazki lehiaketa. Argazkiak aurkezteko azken eguna izango da azaroaren 30a, eta aurkeztu behar dira 40x50 zentimetroko euskarrian; eta, atzean jarri beharko da gaia (A edo B) eta baita argazkiaren izena ere. Lanak aurkeztu behar dira Aloña Mendiren egoitzan. Lehiaketan parte har dezake adinez nagusia den edonork. Lehiaketa bi gaietan banatuko da: A gaia, mendia eta natura; eta, B gaia, denuntzia edo salaketa.

**KINTADA**

71ko kintoek (1950eko urtarrilaren 1ean eta 1951ko otsailaren 28an jaiotakoek) afaria izango dute Soraluze jatetxean azaroaren 20an, 21:00etan. Izena eman daiteke hilaren 15era arte Artxubi, Oñati eta Izarraitz tabernetan, edo Josefina Arregi, Jesus Laskurain, Joxe Mari Irazabal edo Pedro Mari Igartuari esanda. Afariaren ostean dantzaldia egongo da.

**HITZALDIA**

Eguaztenean Alex Txikon mendizaleak hitzaldia eskainiko du Kultura etxean, 19:30ean: *Shisha Pangma-Lemoatik Himalayara*. Lemoatarra mutil polifazetikoa da; hala, mendizalea izateaz gain, aizkolaria ere bada. Lemoatik Katmandura egindako bidaian bizikleta eta aizkora eraman zituen Txikonek. Mendi hamabostaldiaren barruan antolatutako ekitaldia da.

**ZINE-KLUBA**

Eguenean, Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, eta zine-klubeko lagunen laguntzarekin *The Sharp end* filma eskainiko dute. 20:00etan izango da emanaldia, Kultura etxean. Eskaladari buruzko film ikusgarria da, eta hainbat sari jaso ditu kirol zinemaldietan.

**TXAPELKETA**

Egubakoitzean, hilaren 19an, III. Ping-pong txapelketa jokatuko dute Gaztelekuan. 19:00etan hasiko da txapelketa.

**FEDERATU TXARTELAK**

Aloña Mendiko mendi sailak aseguru txarteletan tramitazioak egiteko kanpaina jarri du martxan. Azaroaren 17a baino lehen eman beharko da aseguruan egin behar diren aldaketen berri. Aloña Mendik Atzeko kalen duen lokalera joan beharko da horretarako. Ateak zabalik izango dituzte azaroaren 16an eta 17an, 19:30etik 21:00etara. Gainera, emailez ere egin ahal dira aldaketak: alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Ez dute telefonoz aldaketarik hartuko.


Aranburuzabala kaleko etxeen atzeko partea, eguaztenean harriak jausi ziren lekua. | M.A.

ESKORIATZA

# Harriak jausi dira berriro Aranburuzabalako etxeetara

## Udaberrian eraikitako hormak eutsi egin die eta ez dira etxe barrura sartu

**MIRARI ALTUBE** | ESKORIATZA

Joan den eguaztenean, hilak 10, ezusteko galanta hartu zuten Aranburuzabala kaleko 22. atarteko bizilagunek: harriak jausten hasi ziren mendi magaletik eta, orain dela hilabete batzuk eraikitako hormaren gainetik pasatuta, etxe ingurura iritsi ziren. Zorionez, ez ziren barrura sartu harriok, urtarrilean gertatutako moduan.

**Brigadakoak, garbitzen**

Urtarrilaren 31n Aranburuzabalako 26. atarteko bizilagunei sartu zitzaien lurra etxeetan, mendia behera etorrita. Oraingoan 22. atarteko bizilagunek hartu dute ezustekoa, lur eta harri asko jausi direlako menditik eguaztenean egindako euri jasen ondorioz. Pedro Lasagabaster alkatearen esanetan, udaberrian eraiki zuten hormak oso ondo eutsi die mendiko lurrei eta horregatik ez da arazo handiagorik gertatu –urtarrilean etxe barruraino sartu zen mendia, eta hainbat bizilagunek asteak egin zituzten etxetik kanpo–. Harriak, baina, horma gainetik pasatu dira oraingoan ere, eta etxe inguruetara iritsi. Hori horrela, bizilagunak arduratuta daude: "Horma egin zutenean esan ziguten lasaitasuna bermatuta geneukala urte askotarako, baina hilabete batzuk bakarrik iraun du. Hori ikusita, barruraino sartu zaigu beldurra".

Bizilagun horiek segituan jakinarazi zieten udal agintariei gertatutakoa eta brigadako langileak bidali zituzten harriak kendu eta ingurua garbitzeko.

**Eremu ezegonkorra**

Mendi magalean bizi diren bizilagun batzuek jakinarazi dute 28. atartearen inguruan ere lurra jausten hasita dagoen susmoa daukatela. Alkateak dio posible dela: "Argi dago oso eremu ezegonkorra dela eta arriskutsua". Hala ere bizilagunak lasaitu gura izan ditu: "Adituak egon dira egunotan gertatutakoari begira, geologoak, eta orain arte jarritakoak –horma eta mendiari eusteko sarea– funtzionatzen duela esan digute".

ARETXABALETA

# Saharako bandera dago udaletxean xingolarekin

Aretxabaletako Udalak salatu egin ditu Marokok sahararren aurka egindako indarkeria ekintzak eta bertako herritarrekin bat egiten duen adierazpena kaleratu du. Hori horrela, Saharako bandera dago udaletxeko balkoian eguena ezkero; xingola beltza jarri diote hildakoak gogoan izan eta zauritu eta senideei elkartasuna adierazteko.


M.A.

ARETXABALETA


Karmele Arana, Basotxoko ile-apaindegian lanean. | M.A.

# Basotxoko ile-apaindegia, berritu ostean, egunero dago zabalik

**M.A.** | ARETXABALETA

Urrian zabaldu zuten Basotxo erretiratuen elkarteko ile-apaindegia, berritze lanak egin ostean. Karmele Arana aretxabaletarra da ile-apaintzailea eta pozik dago erretiratuek egin dioten harrerarekin. Egunero dauka zabalik: astegunetan (09:30-12:30 eta 15:00-19:00) eta zapatuetan (09:30-13:00). Eta txanda aurrez hartu behar da (617 24 46 18). Lehentasuna Basotxoko bazkideek izan arren, ez direnak ere hartzen ditu.

Bestalde, eguaztenean podologoa izango da Basotxon. Gaur edo bihar egin behar da podologorako hitzordua bertara deituta (943 79 78 46).

## OHARRAK

ARETXABALETA

**MENDI ASTEA**

Mendi Astea egingo du Murrukixo Mendizale Elkarteak. Hiru argazki emanaldi izango dira: gaur, astelehena, Indiaren gainekoa Ana Mari Iñurrategirekin; bihar, martitzena, Indonesiaren gainekoa Uxoa Etxebarriarekin; eta egubakoitzean, hilak 19, Nepalen gainekoa Luis Mari Urkiarekin. Arkupeko Zaraia aretoan dira guztiak (19:00).

**MENDI IRTEERARAKO DEIA**

Mendi irteera egingo du Murrukixok hilaren 21ean, domeka. Kurtzebarritik Atxorrotzera joango dira. Ondoren babarrun-jana egingo dute. Horretarako, aurrez izena eman behar da eta 15 euro ordaindu (azken eguna, hilak 16).

**'500 DÍAS JUNTOS' FILMA**

Zineklubaren barruan emango dute filma eguenean, Zaraia aretoan (19:30). Sarrera: 4 euro.

**1975EKO KINTOEN AFARIA**

1975eko kintoek afaria egingo dute zapatuan, hilak 20. Hona egitaraua: meza hildako kintoen alde (19:00); txikiteoa Taberna Berrin hasita (20:00); eta afaria Taberna Berrin (21:00). Izena emateko tabernatik pasatu behar da eta 20 euro ordaindu.

**1960AN JAIOTAKOEI DEIA**

Azaroaren 26an, egubakoitza, afaria egingo dute 1960an jaiotakoek Taberna Berrin. Izena jatetxean bertan eman behar da, 20 euro ordainduta; azken eguna, hilak 18.

ESKORIATZA

**ZINEMA**

Zinema Sozialaren emanaldien barruan *El velo de Berta* (Txile, 2004) filma emango dute bihar, martitzena, Ibarraundi museoan.

**SASKIBALOI PARTIDUA**

Saskibaloiko senior mailako emakumezkoek Euskal Kopako finala jokatuko dute eguaztenean, hilak 17, Intxaurtxuetako kiroldegian (19:30). Hona taldeak: Hondarribia-Irun, Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Eguneko zentroa Lurgorri pasealekuan dago. 2011ko lehen hiruhilekoan zabaltzea da asmoa. | E.M.

ARAMAIO

# Lurgorriko Eguneko zentroa kudeatzeko eskaera bakarra jaso du Udalak

Hasiera baten, Eguneko zentroko kontratua lau urterako izango da; zortzi lagun jasoko ditu Aita Gabirel kaleko lokalak eta bi langilek jardungo dute

**EDU MENDIBIL** | ARAMAIO
Eguneko zentroko zerbitzua adjudikatzeko Aramaioko Udalak deitutako lehiaketarako eskaera bakarra jasoko dute. Datozen asteotan osoko bilkuran aztertu beharko dute adjudikazioa.

Zortzi lagun jasoko ditu Eguneko zentroak eta bi langilek jardungo dute adinekoen zaintzaz, bazkariaz, ariketa fisikoaz eta aisialdiaz arduratzen. Udaleko iturrien arabera, adineko nahiko autonomoak izango dira Aita Gabirel kaleko zentrokoak. Mendekotasun handia duten hiru lagun Arrasateko zentrora joaten dira gaur eta hara joaten jarraituko dute haiek. Hasiera baten, Eguneko zentroko kontratua, gehienez, lau urterako izango da, 178.000 euro inguruko aurrekontuarekin. 2011ko lehen hiruhilabetekoan zabalduko dute.

**Denbora bankua, Murgian**
Eguenerako, hilaren 18rako, hitzaldia antolatu dute Zuiako Koadrilaren egoitzan, Murgiako udaletxean. Feli Angulok eta Pilar Hidalgok egingo dute hitzaldia, 19:00etan. *Arabako lurralde historikoan Denbora Bankuaren hedapena* da izenburua eta gaiarekin interesatutako guztiei joateko gonbidapena egin nahi diete.

**Plan orokorra, udaletxean**
Plan Orokorraren gaineko kontsultak egiteko aukera dago udaletxean, martitzenero, goizez. Aurrez baina txanda eskatu beharra dago 945 44 50 16 telefonoan. Plan Orokorra osoko bilkuren aretoan dago ikusgai *www.aramaio.org* webgunean ere eskuragarri dago. Alegazioak abenduaren 13ra arte jasoko dituzte.

**Basogintzako teknikaria**
Eguenean, San Martin egunean, udaletxean jai egin zutenez, Arabako Basogintza Elkarteko teknikariaren hileroko bisita oraingo asteko eguenean, hilaren 18an, izango da.

**Orri markagailu lehiaketa**
Zuiako Koadrilak antolatutako orri markagailu lehiaketarako lanak barikura arte, hilaren 19ra arte, jasoko dituzte Zuiako Koadrilan. Adinaren arabera lau maila bereizi dituzte antolatzaileek: 2-10 urte; 11-14 urte, 15-17 eta, azkenik, nagusiena, 18 urtetik gorakoena. Kategoria bakoitzeko hiru sari izango dira: 150 euro irabazlearendako, 100 eurokoa izango da bigarren saria eta 60 eurokoa hirugarrena. Argibide gehiago 945 43 01 67 telefono zenbakian

LEINTZ GATZAGA

# First Lego League-rako gertatzen dabiltzan proiektuaren aurkezpena

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA
First Lego League lehiaketara aurkeztu gura duten Gatzagako gaztetxoek lanean jarraitzen dute buru-belarri. Orain dela aste bi proiektuaren berri eman eta egindakoa aurkeztu zieten Udal agintariei, kolaboratzaile dituztenei eta gurasoei. Orain Gurel elkarteko guraso eta umeen aurrean egingo dute aurkezpena; zapatuan izango da, hilak 20, Elexalde-Torrekua etxean (18:00), lan lekua gertatuta daukaten lekuan hain zuzen.

**Robota eta proiektua**
Irailean hasi ziren lanean bost mutikoak eta *Prototype* taldea osatu dute. Nazioarteko lehiaketan parte hartzeko zera egin behar dute: robota egin eta probatu eta biomedikuntza proiektua egin. Eta horretan bi heldu dituzte lagun eta gidari: Idoia Armendariz eta Edorta Arana. Robotaren berri eman du Aranak: "Piezak eta ordenagailua eman eta eurek programatu behar dute robot hori, hainbat jarduera egin ditzan. Bestalde, gabeziak dituztenendako hobekuntzak aurkeztu behar dituzte biomedikuntzaren atalean; elbarritu fisikoei eguneroko bizitzarako hobekuntzak egitea da gure asmoa".

Horrez gain, talde dinamikari ere garrantzi handia eman diote: taldean lan egiten ikasi, euskaraz jardun…

**Helburuak beteta**
Proiektua aurkezteko epea gero eta gertuago daukate, abenduaren 11 hain zuzen. Zamudiora (Bizkaia) eroan behar dituzte lanok eta bertan izango direla diote taldeko kideek. Hala ere, Aranaren esanetan helburuak dagoeneko beteta dituzte: "Gaztetxoek eurek hartu dute guztiaren ardura eta izugarri dabiltza ikasten. Aurkezpenekin herrian erreferentzia izatea lortu dute –lagun eta herritarrekin bat eginez proiektu honekin– eta talde lanaren gainean ikasi dute".

Internet bidez guztiaren berri ematen dute gainera: bloga daukate –*www.blogak.com/gurelprototype*–; Youtube-n bideo bi sartu dituzte; eta Flicker-en argazkiak dauzkate. "Eta horri guztiari ere mutikoek eurek egiten diote jarraipena", dio Aranak.

ELGETA

# 1927an jaiotakoek urteroko bazkaria egin zuten domekan

Elgetako, Uberako eta Angiozarko kintoek egin zuten bazkaria; zortzi elkartu ziren

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA
Ostatu jatetxean elkartu ziren domekan urteroko bazkaria egiteko. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez zortzi lagun batu ziren mahaiaren bueltan, sei emakumezko eta bi gizonezko. Elgetako, Uberako eta Angiozarko kintoak dira. Urtero egiten dute hitzordua, eta, jakin dugunez, ondo joan zen bazkaria. Azken urteko pasarteak eta berriak elkarri kontatu, aspaldiko kontuak gogoratu… umore ederrean eman zuten eguna zortziek.

**Guraso elkartearenak**
Bestalde, barikurako, hilak 19, urteroko gaztaina-erre jana antolatu du Maala guraso elkarteak. 15:00etarako egin dute hitzordua, eguraldi ona bada Herriko Plazan eta txarra bada, eskolako jolastoki estalian.

Bestalde, guraso elkartetik jakinarazi dute gaur, astelehena, kobratuko dutela ikasturte hasierako kuota: ume bakoitzeko 15 euro, hain zuzen ere.

Eskola txikien festa ere gogoan dute guraso elkartean. Ekainaren 12an egingo dute, Abaltzisketan, *Herri eta auzo txikiak* bizirik lelopean. Kamisetak salgai daude dagoeneko. Datorren astean ere erosteko aukera egongo dira: martitzenean eta eguenean jarriko dituzte salgai eskolako sarreran, 09:00etan eta 16:00etan, hain zuzen ere.



1927ko kintoak, aurreko domekan egindako bazkarian. | GOIENKARIA

ANTZUOLA

# Oihulari Klownen azken lana, Torresoroan

Beste mundu bat posible dela erakutsiko dute Torresoroan, 20:00etako emanaldian

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ANTZUOLA
*Xake* lanaren aurre estreinaldia egingo du Oihulari Klown taldeak Torresoroan. Gaur egungo munduaren egoera azalduko dute pailazoek euren azken lanean.

**Itxaropena ez da galdu behar**
Aberastasunak eta baliabideak pribatizatzen diren mundua irudikatuko dute; eta, baita, bazterketa eta miseria gizarteratzen den mundua ere. Oihulari Klown taldekoek diote: "Ez zaigu falta arrazoirik larritzeko; hortaz, barre eginarazten saiatzeko gai asko ditugu orain". Taldekideen ustez orain inoiz baino garrantzitsuagoa da itxaropena ez galtzearekin batera, umorea ere ez galtzea.

Ikuspuntu horretatik abiatuta sortu dute *Xake* lana; hain zuzen, bost tailerretako hausnarketetatik eta clownklusioetatik abiatuta.

Aipatutako tailer horietan garapenerako lankidetzan jarduten duten pertsonekin egin zuten lan eta ondoko gaien inguruan hausnartu zuten: elkartasuna, gizarte-justizia, kontsumo arduratsua, eta emigrazioa eta genero-ezberdintasuna.

**Emanaldia doan izango da**
Taldekideen ustez egoera larria da baina beste mundu bat posible da, "eta hori gure lana da" diote.

Emanaldia Torresoroan izango da, hilaren 20an, zapatua, 20:00etan. Sarrera doan izango da. Domekan, Azpeitiko antzerki topaketetan estreinatuko dute lana.




Euskaraz lan egiten dugu. Euskaraz bideratzen ditugu gure harremanak, bai barnean, bai bezeroei begira. Eta euskararen aldeko apustuari eusten diogu, **euskara ardatz harturik Gipuzkoan** sustatzen ari diren **zenbait egitasmo estrategikotan** auzo-lankide jardunez buru-belarri, hala nola:

- **Mintzola Fundazioa**n, bertako patroi.
- **Soziolinguistika Kluster**rean, bazkide.
- **Gaindegia** behategiaren babesle.
- **Ahotsak.com** ahozko ondarearen bilketan laguntzaile.
- **Euskarazko zerbitzua**ren kalitatea sustatuz, Gipuzkoako Foru Aldundi eta hainbat udalekiko hitzarmen-kide.

Eta gizarte eta kulturazko beste hainbat ekimen ere babestuz.
Euskara gure nortasunaren *muin betierekoa* delako. Elkartzen gaituen hizkuntza.

gizarte kutxa
zugandik zugana

# KIROLA

BEHOBIA-DONOSTIA

# Debagoieneko 472 ordezkari helmugaratu dira Donostian

- Imanol Molinero eta Rakel Alonso izan dira ibarreko azkarrenak
- Aurten ere eguraldiak lasterketa zaildu du; ez da errekorrik hautsi
- Iglesias (1:01:10) eta Lopez de Tejada (1:15:10), txapeldun




Imanol Molinero oñatiarra izan zen Debagoieneko azkarrena (01:08:48); irudian, helmugara heltzen . | JOSETXO ARANTZABAL

A.EZKIBEL / J.BEREZIARTUA | ARRASATE

Iaz baino eguraldi hobearekin –haize zakarra, euria zein txingorra izan ziren protagonista iaz– baina blai eginda amaitu zuten atzo Behobia-Donostia lasterketan helmugara ailegatu ziren 17.374 korrikalariek. Euriak eta beriziki haizeak are gogorragoak egin zituen ibilbideraen 20 kilometro eta 400 metroak.

Proba gogorra izan zen oso eta albiste tamalgarri bat ere utzi zuen: 40 urteko korrikalari bizkaitar bat hil egin zen; Zurriolako etorbidean zerraldo erori zen arazo kardiobaskularrek eragindako bihotzekoak jota. Anbulantzia korrikalaria suspertzen saiatu zen behin eta berriz baina ezin izan zuten ezer egin. Aurtengoa lasterketan parte hartzen zuen seigarren aldia zen. Horrez gain, ez zen bestelako gertakari aipagarririk gertatu.

## DATUAK

**33**

DEBAGOIENDAR GEHIAGO

Iaz baino 33 debagoiendar gehiago helmugaratu ziren. 2009an 439 izan ziren eta 2008an, berriz, 464.

**%15,5**

EMAKUMEZKOAK

Gero eta emakume gehiagok hartzen du parte: aurten parte-hartze osoaren %15,5a emakumezkoak izan dira.

### Lasterketa, markak hausten

Lasterketa osoko parte-hartzeak markak hautsi ditu aurten, eta izenematean 20.000 lasterkarien muga gainditzea lortu da aurten.

Debagoienak ere markak hautsi ditu: 472 debagoiendar iritsi ziren Boulervadeko helmugara, iaz baino 33 gehiago. Ibarreko parte-hartzearen gorakada ulertzekoa da azken hilabeteotan bailarako lasterketek izan duten *boom*-a ikusita.

### Debagoieneko mutil onenak

Debagoiendarren markak ez ziren nolanahikoak izan. Denetan azkarrena Imanol Molinero oñatiarra izan zen. Gainera, Molinerok marka pertsonala apurtzea lortu zuen: 1:08:48ko denbora egin zuen helmugan. Haren atzetik sartu ziren Asier Urdanpilleta eta Ritxar de Goñi. Molinero pozik zegoen, eta adierazi zigun marka hobetzeko gogor entrenatu duela aurtengoan. Helmugan bertan, ginerako debagoiendarren zoriona jaso zuen. Urdanpilleta ere pozik zegoen. Gainera, gustuko izan zuen eguraldia atzokoan. Esan zuen, baina, azken kilometroetan giharrak mindu egin zitzaizkiola. De Goñi bergararra ere pozik zegoen markarekin: ordubete eta hamar minutu baino gutxiago egin gura zituen, eta lortu zuen. Arkaitz Ruiz de Loizagarekin batera hasi zuen lasterketa; gero, bakoitzak bere erritmoa hartu zuen.

Helmugan sartzen laugarren debagoiendarra Aritz Kortabarria arrasatearra izan zen. Kortabarriak Jose Gabriel Urizar euskal presoaren izenean egin zuen antxintxika.

### Neskak, indartsu

Debagoieneko neskei dagokienez, Arrasateko Rakel Alonsok egin zuen marka onena: 1:30:17. Itziar Aldekoa eta Lidia Gonzalez izan zien hurrenak. Gonzalez oñatiarra lasai asko sartu zen helmugara. "Hirugarren urtea da, eta datorren urtean ere errepikatzeko asmoa daukat", esan zuen. Errepide bazterrean egoten diren ikusleen animoak izugarriak direla eta asko laguntzen dutela gaineratu zuen. Izan ere, ibilbide osoan zehar ikusleak izateak egiten du ezberdina Behobia-Donostia.

### Iglesias, Martinezen aurretik

Debagoieneko protagonistez gain, elite mailan Rafa Iglesias izan zen nagusi (01:01:10). Iglesias eta Txema Martinez ziren faborito; proba aurretik biek adierazi zuten



**IMANOL MOLINERO**
OÑATI

Gustura geratu naiz lasterketarekin. Hasieran taldetxoa egin dugu eta eutsi egin diot. Iaz baino eguraldi hobea egin du baina, hala ere, haizea zakar ibili da. 01:11tik jaistea gura nuen eta lortu dut marka egitea.



**LIDIA GONZALEZ**
OÑATI

Bukatu dut eta gustura nago. Hasieran lasai hasi naiz eta, ondo nindoanez, ahalik eta ondoen egin dut. Hirugarren urtez parte hartu dut eta uste dut orain arteko marka onena egitea lortu dudala. Asko eskertzen dira animoak!



**JON ANDER EGAÑA**
BERGARA

Eguraldi txarragatik patinekin lasai joan behar izan dugu. Lasterketa zoragarria da, batez ere, jendearen animoengatik. Horrelako zerbait antolatzen den lehen aldia da, datorren urtean berriro eginez gero, etorriko gara.

SASKIBALOIA | Sustrai-Aloña nagusi MUren aurkako derbi historikoan | 26



Alberto Juzdadoren errekorra (59:19) apurtzera zihoazela. Mirakrutzeko gainan erabaki zen lasterketa; portuan gora egin zuen ihes Iglesiasek eta 2005etik 2008ra probako azkarrena izan den korrikalari madrildarra atzean utzi zuen. Helmugan 50 segundo galdu zituen Martinezek (01:02:00).

Emakumezkoetan Maria Lopez de Tejada izan zen azkarrena (01:15:10). Hala ere, lasterketako bitxikeria etiopiarren eskutik etorri zen. *Utopia etiopia* ekimena dela-eta etorri ziren, Afrikako umeei laguntzeko asmoz. Bada, gizonezkoei gertatu bezala, beharrezkoak diren txipak beste oinetako batzuetan utzi eta ez zuten elitekoekin irteterik izan. Hala ere, euren denborak Rocio Rios-ek 1998an jarritako errekorraren azpitik izan ziren (01:08:54): Tigsti Gebreselassie-k 01:08:34 behar izan zituen eta Tehas Gebre-k, aldiz, 01:08:37. Txipa ahazteak ekidin du, beraz, errekor berria emakumezkoetan.

## IBARREKO AZKARRENAK

### GIZONEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Imanol Molinero | 01:08:48 |
| 2. | Asier Urdanpileta | 01:09:27 |
| 3. | Ricardo de Goñi | 01:09:57 |
| 4. | Jose Gabriel Urizar | 01:10:20 |
| 5. | Arkaitz Ruiz de Loizaga | 01:11:00 |
| 6. | Iker Herran | 01:12:23 |
| 7. | Kepa Varela | 01:12:25 |
| 8. | Joxu Arana | 01:12:57 |
| 9. | Xabier Elkoro | 01:13:30 |
| 10. | Igor Lazkano | 01:13:37 |

### EMAKUMEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Rakel Alonso | 01:30:17 |
| 2. | Itziar Aldekoa | 01:31:24 |
| 3. | Lidia Gonzalez | 01:32:36 |
| 4. | Amaia Bernal | 01:33:40 |
| 5. | Saioa Ugidos boriena | 01:34:15 |
| 6. | Trini Blazquez | 01:36:05 |
| 7. | Ana Isabel Urmeneta | 01:36:19 |
| 8. | Izar Urteaga | 01:38:04 |
| 9. | Leire Guenetxea | 01:38:21 |
| 10. | Maria Jesus | 01:38:28 |

ITURRIA: FORTUNA KIROL ELKARTEA

## 40 urteko bizkaitar bat hil egin zen bihotzekoak jota

## Rafa Iglesiasek Mirakrutzen erasoa emanda irabazi zuen

## Etiopiarrak ez ziren elitekoekin irten txipa ahaztu ostean



Rafa Iglesias, lasterketako irabazlea. | J.A.




Maria Lopez de Tejada, lehenengo emakumea. | J.A.




Iturengo joaldunak helmugan sartzen. | J.A.



German Aginagalde, Imanol Lukas, Miren Aginagalde eta Ander Jausoro. | J.A.






Bergarako Hanka Labanka taldeko kideetako batzuk eta Nerea Mendiola oñatiarra. | ARANTZAZU EZKIBEL




Oñatiko Mikel eta Aitor. | J.A.




Trini Blazquez eta Ana Isabel Urmeneta oñatiarrak. | J.OSETXO ARANTZABAL




Bergarako Javi Ibarra. | J.A.




Arrasateko Aritz Kortabarria. | J.A.



Salah Amaidam sahararra. | J.A.



Juan Ramon Barrena (ezkerretik bigarrena) oñatiarra, lan taldearekin. | J.A.

IKUSPUNTUA



**ARANTZAZU EZKIBEL**

## Kirola baino zerbait gehixau

Aurten be Boulevard-eko helmugan egon naiz, baina oinguan mikrofonuan beste aldian. Eta esan bihar dot inbidixaz egon naizela; halakotan, *inbidixa sanua* dala esaten da, baina ez dakit ba nik...

Helmugara sartzen lehenenguak Iturengo joaldunak izan zian; benetan, emozionau in nintzen! Negar malkuak eutsi biharrian egon nintzen... Jose Mari joaldunak esan ozkun goizeko 7etan irten ziala Behobiatik, 12 bat kilo gainian... a ze meritua!

20.000 lagunen artian, debagoiendarrak mordua. Halakotan, baina, zaila izaten da nor dan nor ezauketia. Arrasateko lagun koadrila batek, esaterako, urtero moduan, presuen izenekin antxintxika egin eben. Ikusleen elkartasuna jaso eben beste bat Salah Amaidam atleta sahararra izan zen.

Aurten, gainera, patinetan irten dia 120 lagun inguru. Horietatik 8 Bergarako Hanka Labanka taldekuak; Oñatiko Nerea Mendiola ere patinetan irten zan. Holako eguraldixakin burua apurtu ez ebeinian!

Pertsona ezagun gutxi ikusi nittuen, bi zehatzauak izatiarren: Joseba Permach eta Mikel Erentxun.

Zorionak danoiri, eta, bereziki nere lehengusu Lorea, Miren eta Nachori!



**RITXAR DE GOÑI**
BERGARA

Ondo ibili naiz. Nire asmoa zen 01:10etik jaistea eta uste dut lortu dudala. Haize pixka bat egin du, horregatik, gogorra izan da lasterketa. Niretako, guztien artetik momentu txarrena Mirakruz gainekoa izan da.



**ASIER URDANPILLETA**
OÑATI

Eguraldi polita egin du korrika egiteko, baina ez ikusteko. Aurten ez neukan Behobia egiteko asmorik, horregatik, gustura geratu naiz egindakoarekin. Aldapa askoko lasterketa da eta giharrak mintzen ditu.



**ARATZ LOSADA**
OÑATI

Gasteizko maratoi erdia prestatzen nabil eta oso gustura geratu naiz egindakoarekin, batez ere, eguraldia ikusita. Euria beti da deserosoa antxintxika egiteko; baina ni gehien molestatzen nauena haizea da.



**IKER ETA GURUTZ LARREA**
ANTZUOLA

Iker ni baino hiru minutu lehenago atera da; hortaz, nire asmoa zen hura harrapatzea. Behin harrapatu dudanean, eskerrak berak tira egin duen... Gaurko eguraldia ez da oso ona izan. Euria ez da oso deserosoa, baina haizea bai. Lasterketako txarrena zer izan den? Agian gutxi entrenatuta etorri garela (barre). Azkenean esprinta egin dugu eta ez gaude ziur nork irabazi duen! Ikusleen babesa izugarria da. Gainera, badakigu lagunak non egon diren; hortaz, agurtzeko modua izan dugu.

SASKIBALOIA

# Sustrai Aloña nagusi izan da luzapenean, MUk garaipena eskura izan arren

Bigarren laurdenean hamabost puntu goitik joan arren, MUk ezin izan zion eutsi tarteari



Iñigo Biain saskiratzea egiteko gertu MUko jokalarien artean. | JOSETXO ARANTZABAL

**EMAITZA**

SUSTRAI ALOÑA
**110-103**
MU

**FITXA TEKNIKOA**

**Sustrai Aloña:** Gamarra, Anduaga, Mallabiabarrena, Mikel Biain, Iñigo Zabaleta, Beñat Madariaga, Eneko Blanco, Iban Lizarralde, Markel Exposito, Mikel Uribetxeberria, Iñigo Biain eta Ibai Osa.

**MU:** Mikel Arejolaleiba, Andoni Aranzabal, Martxel Balzategi, Iker Barbero, Paul Isasa, Gorka Kintana, Alex, Mikel Anasagasti, Igor Moracho, Ander Atxa, Unai Barrena, Andoni Zabalo.

**Bestelakoak:** Harmailak goraino beteta zaleekin eta giro bero-beroa. Pankartak eta oihuak talde biak animatzeko.

**MIRARI ALTUBE** | OÑATI

Partidu bizia, borrokatua eta intentsitate handikoa jokatu zuten Sustarai Aloñak eta MUk zapatuan, Zubikoa kiroldegian. Derbi historikoa zen, lehenengoz aurrez aurre zirelako Debagoieneko bi taldeak eta Oñatiko hainbat jokalarik talde ohiari egingo ziotelako aurre; harmailak goraino bete ziren, giroa berotzeko. Azken hiru denboraldietan etxean partidu bakarra galdu duten oñatiarrei gogotsu egin zieten aurre arrasatearrek eta lehen laurdenean guztiz parekatuta ibili ziren (25-23). Josu Larreategiren mutilak irabazteko gogoz daude eta, defentsa lanetan gogor eginez eta saskiratzeetan asmatuta, aurrea hartu zieten etxekoei. Hala bada, bigarren laurdenaren bukaeran, 15 puntu goitik zeuden (39-54).

Hirugarren laurdenean bueltta emateko gogoz kantxaratu ziren Aloñakoak eta Gamarrak hirukoekin asmatu zuen, markagailuan hurbiltzea lortuz (55-61). Baina hutsegiteak izan zituzten eta bukaeran oraindik ere atzetik zihoazen (65-77).

**Berdinketa eta luzapena**

Laugarren laurdenean urduritasuna nagusitu zen bai kantxan, bai harmailetan. Gamarra, Mallabi eta Biainek txakur zaharrak direla erakutsi zuten eta, arrasatearren esperientzia ezaren aurrean –baloiak galdu, faltak egin, jaurtiketak huts egin...–, kantxan nagusitzen joan ziren; markagailuan hurbiltzea lortu zuten; eta bukatzeko 28 segundu geratzen zirenean, berdindu egin zuten partidua (94-94). Azken uneetan arrasatearrak hainbat aldiz izan ziren kexu epaileek hartutako erabakiekin.

Luzapeneko lehen saskiratzea arrasatearrek egin zuten, baina Oñatikoak irabaziko zutela sinistuta kantxaratu ziren eta laster ziren aurretik (97-96). Iñigo Biainek egindako erasoak tarteko, ez zen atzera bueltarik egon eta azkenean etxekoak nagusi, beste behin (110-103).



**ANDONI ARANZABAL**
MU-KO JOKALARIA

Ondo hasi gara, atsedenaldian ere aurretik gindoazen baina gero okertu egin da kontua. Epaileek hasieran lagundu egin digute apur bat, baina gero gure aurka egin dute. Ahalegindu gara mantso jokatzen, gure abantailari eusteko, baina ezin izan da eta penaz goaz.



**JAGOBA GAMARRA**
SUSTRAI ALOÑAKO JOKALARIA

Esperientzia, bihotza... dena jarri behar izan dugu. Harrigarria da MUk egin duen partidua; espero genuen, baina hainbeste ez, eta %200 eskatu digute. Eta taldea garela erakutsi dugu guk. Partidu berezia zen, konnotazio askokoa eta galtzea gogorra izango zen.

FUTBOLA

# Mondra garaile aparteko partidurik egin ez arren eta jokalari bat gutxiagorekin (1-0)

Aloñak eta Aretxabaletak ere irabazi egin zuten eta Bergarak galdu

**M.A.** | ARRASATE

Sailkapenean azkenengo postuan dagoen Zumaiakoren aurka jokatu zuen Mondrak zapatuan, Mojategin eta, aparteko partidurik egin ez arren, Iban Rodriguezen mutilak nagusi izan ziren.

Lehen zatian hainbat gol aukera izan zituen Zumaiakok, puntuak eskuratzeko gogoz zetozen seinale, baina ate aurrean ez zuten asmatu. Zelai erdian ez zen jokorik izan eta kontrol gutxirekin jardun zuten. Gainera, jokoa gogortzen hasi zen eta epaileak hainbat txartel atera zituen.

Bigarren zatia hasi eta laster Oier erdilari arrasatearra kalera bidali zuen epaileak, txartel gorria erakutsita. Horrek suspertu egin zituen etxekoak eta 64. minutuan gola iritsi zen: kornerra atera eta Aitor Iregik buruz sartu zuen. 70. minutuan penaltia adierazi zuen epaileak Zumaiakoren alde, baina ez zuten asmatu, kanpora bidali baizik. Ondoren hainbat aukera izan zituzten kanpokoek baina Ander atezaina bikain ibili zen. Harmailetako ikusleak, ostera, berotzen joan ziren partiduak aurrera egin ahala, epaileak txartel asko atera zituen-eta.



Mondrako jokalariak epaileari azalpen eske. | JOSETXO ARANTZABAL

**Aloñak eta UDAk ere irabazi**

Ohorezko erregional mailan jokatzen duen Aloñak ere etxean jokatu zuen Rotetaren aurka eta irabazi (3-0); Aretxabaletak ere irabazi egin zuen zapatuan, Ordizin(0-1); eta Bergarak galdu Azkoitin, Anaitasunarekin (2-0). Hala, Mondra bosgarren dago sailkapenean, UDA zazpigarren eta Aloña eta Bergara berdinduta atzeko postuetan (14 eta 15).

XAKEA

## Alejandro Franco madrildarrak irabazi du X. Arrasate Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa

Egubakoitzean jokatu zituzten X. Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldiko partidak eta Alejandro Franco izan da aurtengo garailea. Haren atzetik geratu dira: David Astasio eta Iñigo Argandoña. Eta laugarren eta bosgarren postuetan bi aretxabaletar: Fran Miguel eta Aitor Alcaide.

Aurten parte-hartzaile gutxiago izan direla lehiaketan onartu dute antolatzaileek, baina "maila bikaina egon da eta alde horretatik oso pozik gaude".




ESKUBALOIA
JOSETXO ARANTZABAL

## Ford Mugarri lasai nagusitu zen

Hasiera gogorra izan zuen zapatuan Ford Mugarri eta Portugaleteren arteko eskubaloi partiduak. Lehen zatian nahiko parekatuta ibili arren bi taldeak, arrasatearrak aurretik izan ziren uneoro. Horren aurrean, Portugaletekoak berotzen joan ziren poliki-poliki partidua apurtu arte, eta ordutik aurrera Edu Orgazen mutilek aldea handitu zuten. Bukaeran, Ford Mugarri35-Portugalete 22.




Roberto Zugasti *Txiki* ziklo-kroseko bizikletarekin eta maillotarekin; Logroñoko Arluy taldearekin du kontratua. | A.E.

ELKARRIZKETA

**Roberto Zugasti 'Txiki'** | Ziklo-kroseko txirrindularia

# "Zirkuitu teknikoak gustatzen zaizkit, eta pittin bat bustiak egon daitezela"

- Ziklo-kroseko Master mailan jokatzen du 'Txiki'-k
- Oñatin ziklo-kros lasterketa jokatuko da, abenduaren 18an

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Azkeneko urteetan Lizarralde Kirolak bizikleta dendan ikusi dugu Roberto Zugasti *Txiki*, mekaniko lanetan. Baina, bizikletak konpontzeaz gain, bizikletan ibili ere egiten da. Master mailako ziklo -kros txapelketan dabil orain.

**Umetan hasi zinen bizikletarekin eta jarraitu egiten duzu.**
Bai, kadetetan hasi nintzen ziklismoan, Aloña Mendin. Gero, gazte mailan ziklo-kroseko lasterketaren bat egin nuen. Baina, soldadutzara joan nintzenean utzi egin nuen. Ondoren, mendiko bizikletan hasi nintzen eta 30 urte bete nituenetik nabil master mailan.

**Bideko bizikleta eta ziklo-krosa uztartzen dituzu.**
Bai, azken bederatzi urteak master mailako bideko bizikletan ibili naiz; eta azken hiru urteetan biak uztartu ditut.

**Denboraldia urri erdialdean hasi zenuten. Zer moduz hasi duzu?**
Uda partean bideko bizikletarekin ibiltzen naiz, otsailetik irailera. Gero hasten dut ziklo-kroseko denboraldia.

Ni gusturago ibiltzen naiz ziklo-krosean. Orain dela hilabete hasi ginen denboraldiarekin eta dagoeneko sei lasterketa jokatu ditugu. Euskadi mailan 14 lasterketa inguru daude; baina, hemengoak hasi aurretik, Valladolid inguruan hainbat lasterketa jokatzen dituzte. Espainiako kopa, adibidez, Zamoran jokatuko da. Hemen inguruan lasterketarik ez dagoenean kanpora joaten gara.

**Ziklo-krosa nahiko berezia da. Zelako lasterketak izaten dira?**
Zirkuituak izan behar du bi kilometro t'erdi eta hiru kilometro t'erdi artekoa. Kategoria bakoitzak bere denbora izaten du. Adibidez, gazte mailak eta master mailak 40 minutuan izaten dute; eta, eliteek 55 minutu. Irteera ematen denean itzuli bat egiten da eta itzuli horretan egindako denboraren arabera kalkulatzen dute zenbat itzuli egin behar diren.Parte hartzaileei dagokienez komeni da 50 bat lagun izatea. Azkenaldian lagun mordoa irten izan gara, 130 adibidez, eta hori larregi da.

**Hemen inguruan ziklo-kroseko ze zirkuitu dago?**
Gabonetan Elorrion Euskadiko txapelketa jokatuko da. Bestalde, Ormaiztegin, Itsasondon... urte mordoa dabiltza lasterketak antolatzen.

**Aspaldiko partez, Oñatin jokatuko da ziklo-kros txapelketa.**
Bai, San Martinen eta inguruko zelaietan jokatuko da. Federaziotik ere etortzen dira zirkuitua ikustera eta baldintza batzuk jartzen dituzte: adibidez, zenbat asfalto izan behar duen, edo oztopoak zenbat izango diren.

Zirkuitua erabaki barik dago, baina eguna izango da abenduaren 18an.

**Gainera, ziklo-krosean Espainiako txapeldun izandakoa oñatiarra da, Mariano Altube.**
Bai, baditut argazkiak Mariano Altube eta Anton Barrutia San Martinen ziklo-krosa jokatzen, adibidez. Lehen jende dezente ibiltzen zen ziklo-krosean.

**Azkenaldian, badirudi, berriro ere indarra hartu duela ziklo-krosak.**
Bai, gora doan kirola da. Urte batzutan nahiko behean egon da, jende dena errepidean ibili delako. Gainera, ziklismo eskoletan esaten zuten ez zela ona ziklo-krosean ibiltzea errepiderako. Baina, erakutsi da negu partean hobe dela astean ordu betez lehiatzea, geldi egotea baino.

Gertatzen dena da garai batean zirkuituak luzeagoak eta gogorragoak zirela; hortaz, lehenengo itzulian erabakita geratzen zen dena. Orain Europako moduko zirkuituak dira, teknikoagoak.

**Errepideko bizikleta eta ziklo-krosaren artean ze ezberdintasun dago?**
Errepideko lasterketak luzeagoak izaten dira; ziklo-krosean, ostera, teknika eta indar gehiago behar izaten da. Gainera, ziklo-krosean arrabola (rodillo) egin behar da irten aurretik; esan daiteke, izerditan irten behar dela. Lasterketa leherkorrak izaten dira.

**Nolako zirkuituak dituzu gustuko?**
Teknikoak izatea eta pittin bat bustita egotea, baina lokatzara larregi egon barik.

**Dendan mekaniko lanetan ibiltzen zara, baina inoiz ibili zara txirrindulari talderen batekin?**
Ez, inoiz ez. Proposamenak izan ditut talde profesionalekin; baina, hemen oso gustura nago.

**Zenbat entrenatzen duzu?**
Urtean, guztira 12.000 kilometro inguru egingo ditut. Ziklo-kroserako, adibidez, astean bost eguneтan ordu eta erdi ibiltzen naiz.

**Anaiaren laguntza izaten duzu lasterketetan.**
Bai, ziklo-krosean oso garrantzitsua da norbait izatea ondoan. Beharrezkoa da. Bi edo hiru bizikleta eramaten dugu eta bera arduratzen da horietaz.

**"Soldadutzara joan nintzenean utzi nuen ziklismoa eta orain berriro hartu dut bizikleta"**

**"Uda partean errepidean ibiltzen naiz gehien eta neguan, ostera, ziklo-krosean"**

**"Nahiko behean egon den kirola da ziklo-krosa, denak errepidean ibili direlako"**

**"Anaiak laguntzen dit lasterketetan; garrantzitsua da laguntza izatea, beharrezkoa"**

# 'Habia hutsaren sindromeari' aurre hartzeko moduak badaude

## Seme-alabak emantzipatzea oso gogorra egiten zaie guraso batzuei

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Seme-alabek etxetik joateko asmoa dutela jakinarazten dutenean pozez hartzen dute albistea guraso batzuek, baina beste batzuek etxea husten ari zaiela sentitzen dute. Tristura, bakardadea eta motibazioa galtzea ekartzen die. Badira sentipen horiek gainditzeko estrategiak eta komeni da psikologoen edo profesionalen aholkuak aintzat hartzea.

**Sintomak**

Bakarrik eta triste sentitzea, autoestimua jaistea, lo-nahasmenduak agertzea, nekea, kontzentrazio falta... horiek dira, *Consumer* aldizkarian berriki irakurri dugunez, ager daitezkeen sintoma batzuk. Egoera larregi okertu aurretik adituek gomendatzen dute profesional batengana jotzea. Beste gomendio bat da seme-alabak oraindik etxean daudela bizitzako aldi berri horretarako prestatzen hastea; gizarte-sarea zabaltzea, norberak inguruan duen pertsona kopurua handitzea eta harreman horien kalitatea zaintzea. "Aisialdi-jarduerak eta zaletasunak ugaritzea ere lagungarri da sindromeari aurre hartzeko. Kirola egiteko ohitura duten gurasoek edo kultura elkarteren batean parte hartzen dutenek beste esanahi bat ematen diote euren bizitzari, dena ez baita seme-alabak zaintzea, eta, horren ondorioz, prestatuago egon litezke haiek joaten direnerako".

**Depresioen aurrean**

*Habia hutsaren sindromeari* lotuta dauden zenbait depresio aski larriak izan daitezke. "Ohiko medikuak neurtu behar du egoera, eta hark adierazi behar dio gaixoari komeni zaion edo ez psikologo batengana joatea. Maizenik, ez da behar izaten terapia-saio askorik, nahiz eta zenbaitetan, emozio-egoera oso apala bada, depresioaren aurkako sendagaiak hartu behar izaten diren. Sindromea dela-eta gaixoak psikologo batengana jo badu, nekez izango da bizi osorako zama.

Gomendio moduan kontuan hartu behar direnak honakoak dira: lehen seme-alabei eskaintzen zen denbora aisialdi-jarduerekin bete, bikote-bizitza biziberritu, egoera berria onartu eta askatasun-aukeratzat hartu.

**Egokitzeko denbora hartu**

Garrantzitsua da horrelako aldaketa baten aurrean egoera berria onartzeko denbora hartzea. Gurasoek erretiroa hartzeko puntuan badaude, edo ama menopausia garaian badago, are zailagoa izan daiteke, gainera.

# Umeen heziketan aitaita-amamek ipintzen duten aletxoa oso garrantzitsua da

## Oso garrantzitsuak dira, baina umeak heztea gurasoen zeregina da

L.Z. | ARRASATE

"Ohiko egoeretan umeek oso gertuko sentitzen dituzte aitaita-amamak, eta haurren garapen afektiboko oso beharrezkoak dira". Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan esan ditu hitzok Beatriz Ezeizak. "Afektuaz gain beraien esperientzia eskaintzen digutelako, familia osoaren ezagutzaren bilketa kulturala egiten digutelako eta bakoitzaren sustraien oinarri bat direlako. Horrek guztiak haurrari ziurtasuna ematen dio. Euren istorioak kontatzen dituztenean, eureak nola bizi ziren kontatzen dutenean... umeak ulertzen du nondik datorren, zeintzuk diren bere aurrekariak eta ulertzen du zein den bere lekua familian. Horrek bere identitatea osatzen laguntzen dio. Gurasoak ez diren beste erreferentzia bat dira aiton-amonak umeendako, eta elkarri onura ikaragarria egiten diote".



Aitaita eta biloba itsasoari begira. | HEART INDUSTRY

**Heziketaren ardura, gurasoena**

Beatriz Ezeizak argi utzi du heziketaren ardura gurasoena dela, eta ez aitaita-amamena. "Faktore hori oso kontuan hartu behar dugu", adierazi du Ezeizak. "Aitaita-amamen funtzioa ez da gure seme-alaben heziketaz arduratzea, eta umeek ez dituzte funtzio horiek nahastu behar. Heziketaz gurasook arduratzen gara". Aitaita-amamekin umeek denbora luzea pasatzen dute gaur egun; bizi erritmo lasaiagoa dute eta umeak ondo sentitzen dira. "Gainera, gauzak gehiago erlatibizatzen dituzte", azaldu du Ezeizak. Baina argi utzi du aitaita-amamen funtzioa umeen heziketan euren aletxoa ipintzea dela. "Gure seme-alaben heziketaren protagonismoa gurasoena da. Ezin diegu aitaita-amamei zama hori eman. Kapritxoak ematen dizkietela? Ba, saiatu aitaita-amamei etxeko arauen berri ematen eta horiek ahal duten neurrian errespetatzeko eskatu behar zaie. Ulertuko dute, baina berriro diot: aitaita-amamei ezin dieguna eskatu da gure ordez umeak hezteko".




Begoña Gomez, Baketik zentroko ikastaroaren zuzendaria. | BAKETIK

# Baketik zentroan azaroaren 20an abiaraziko dituzte guraso eskolako saioak

## Bizikasi pedagogia eta Izan Proposamena dira eskolaren oinarriak; bost orduko lau saio dira

L.Z. | ARRASATE

Gurasoei eta hezitzaileei bereziki zuzendutako ikastaroa da, eta asmoa da prestakuntza ematea norbera eta ingurukoak hezten laguntzeko. "Gauza batzuetan oso garbi daukagu ondo hezteko zer jakin behar dugun; adibidez, matematikak, hizkuntzak... Baina beste kontu batzuetan zailagoa da horiek zehaztea", azaldu du Baketik zentroko ikastaro arduradun Begoña Gomezek. "Ez dakigu zer ikasi behar dugun bakean hezteko, edo zer jakin behar dugun bakardadeari edo sufrimenduari aurre egiteko. Erantzun horiek topatzea ez da erraza. Horiek guztiak landuko ditugu Baketik-eko guraso eskolan".

**Bizikasi pedagogia**

Norberaren bizipenaren kontzientzia izanik eta horretatik ikasiz gure burua hobe dezakegula erakusten du Bizikasi pedagogiak, eta Izan Proposamena Bizikasi pedagogiarekin bateragarria da.

**Izenematea zabalik**

"Ikastaroetan parte hartu gura duten guztiak etor daitezke", esan du Gomezek. Esparru teorikoa eta praktikoa landuko dituzte: "Egunero sor daitezkeen arazoak aztertu eta landuko ditugu".

Bost orduko lau saio proposatzen dituzte. Eskolak azaroaren 20an abiaraziko dituzte eta gainerako saioak abenduaren 18an, urtarrilaren 15ean eta otsailaren 19an egingo dituzte. Prezioa ikastaro bakoitzeko 45 euro da.

Interesatuek hiru bide dituzte izena emateko: 943 25 10 05 telefonora deituta; *baketik@baketik.org* helbidera mezua bidalita; edo, *www.baketik.org* helbidean. Informazioa gura duenak bide berberak erabil ditzake.

### Banantze prozesuak izango dituzte hizpide eguaztenean Goiena Telebistako guraso tertulian

Bikote banaketa guztiak dira gogorrak, baina tartean seme-alabak daudenean banantze prozesuek beste dimentsio bat hartzen dute. Nola eman erabakiaren berri seme-alabei? Nola bizi dute prozesu hori neska-mutikoek? Ze neurri edo jarrera dira egokienak umeei ahalik eta kalte gutxien sortzeko? Argi dago zauri handia zabaltzen duela horrelako erabaki batek, baina jokabide egokiekin aldea nabarmena da. Etzi, eguaztena, gai horren inguruko mahai-ingurua egingo dute Goiena Telebistako guraso tertulian. Mahaiaren bueltan izango dira Enara Agirre psikoterapeuta antzuolarra eta Juankar Olaeta, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko zuzendaria. Hitzordua 20:45ean da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

# Euskal kulturgintzak galdutako bi ikur omendu dituzte Bergaran eta Oñatin

- Bergarako Idazle Eskolak Karmele Igartua poeta aretxabaletarra agurtu du
- Patxi Hipolitoren errautsak Donostian eta Oñatin banatu dituzte



Karmele Igartuaren irudiak toki nagusia hartu zuen aretoan. | JOSETXO ARANTZABAL

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Toperaino bete zen zapatu eguerdian Bergarako UNEDeko areto nagusia; lepo, abuztuan zendu zen Karmele Igartua poeta aretxabaletarraren lagun, lankide eta senitartekoekin. Omenduaren gisara apaindutako gelan –koloretako oihal, harri, maskor eta argi-ilunekin–, elementu asko izan zituen ekitaldiak: txalaparta, bertso, irrintzi... baina batez ere, olerkiak. Lurra, ura, sua eta haizea oinarri hartuta, Igartuaren sormen lanak irakurri zituzten. Eta Kurtzebarri Eskolako lankide ohiek Fermin Balentziaren kantu bat abestu zuten, Igartuak berak mailez bidalitako azkena.

Emakume librea, euskalduna eta abertzalea, lagunen laguna, ameslaria, bakarra eta benetakoa zen, bere gertukoen esanetan; eta bere hizkera, xumea bezain sakona eta irakurterraza.

Zapatuko omenaldia nola joan zen ikusirik, pozik agertu ziren Idazle Eskolakoak: "Hegan egiten utzi dugu gure enara eta orain beste arnas bat hartuko dugu". Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Bergarako UNEDeko zuzendari ohi Juanjo Alvarez eta Euskara eta Kultura diputatu Maria Jesus Aranburu. Karmele Igartuak eskatu ohi zuen eran, ez zuten txalorik jo amaierara arte; orduan bai, zaparrada luzeak apurtu zuen isiltasuna.



Zozoa eta, haratago, Patxi Hipolitoren aurpegia ikus daitezke harrian. | IÑIGO BIAIN

**Patxi Hipolitok nahi moduan**

Bestalde, Oñatiko Gaztelekuko dinamizatzaile Patxi Hipolito oroitzeko, bizi izan zen bitartean ukitu zituen esparruetako –musika, argazki, marrazki...– ordezkariak, lagun eta senitartekoak Arantzazun batu ziren atzo. Hipolitok berak aukeratutako tokian egin zuten agur-ekitaldia: Arantzazuko arroilan dagoen eta berak oso maitea zuen pago baten ondoan. Xabier Lete eta Mikel Laboaren *Negu hurbilak* abestu eta poema batzuk irakurri zituzten; haritz bat landatu; Pello Ramirez txelo jotzaileak Hipolitoren pieza kuttun bat jotzen zuen bitartean, haren errautsak lurperatu; eta bere ibilbidean zehar gertuko kolaboratzaile izan zuen Aitor Bolinagak margotutako harri bat zuhaitzaren enborreko zulo natural baten sartu. Euripean egin zuten ekitaldia.

## 'Itsaso kontra bat' 2011rako

Itsaso ondoan etxe bat izatea amets–eta, *Itsaso kontra bat* izenburupean, hil aurretik olerki liburu bat utzi zuen argitaratzeko gertu Karmele Igartuak. 2011ko udaberrian ikusiko du argia, Pamiela argitaletxearen eskutik. Bertako ordezkari Jose Angel Irigaraik pertsona eta poesia puska aipatu, eta sekulako heredentzia utzi digula gaineratu zuen: "Izan eta ez izanaren mugan, azken momentura arte idatzitakoa, euskal poesigintzan ez dago horrelako libururik".



# Herritarrek kontatutako ipuinak jasotzen ibili da 'Kontalaria' furgoneta, Oñatin eta Arrasaten

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE
*Kontalaria* egitasmoa jarri du abian Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta herriz herri dabil furgoneta bat herritarrek kontatutako ipuinak jasotzen. Aste bukaeran Debagoienean izan da furgoneta hori: zapatu goizean Oñatin eta arratsaldean Arrasaten.

Espazio publikoetan euskara sustatzea helburu duen egitasmoa da. Era berean, beste erronka batzuk ere baditu: euskararen erabilerari balioa ematea; sormena lantzea; teknologia berrien inguruan jardutea; eta belaunaldien arteko harremana eta komunikazioa bultzatzea euskaraz. Hala bada, lagun askoren artean ipuin bat osatzea zen kontua, bakoitzak zatitxo bat kontatuta kameraren aurrean, eta bai Oñatin, bai Arrasaten 10-15 bat herritarrek hartu dute parte.

**Dragoi ona Arrasaten**

Oñatin, Ganbara Abesbatzako kideek, Lizargarate trikiti taldekoek, Oñatz dantza taldekoek eta beste hainbatek jardun dute kontalari. Etxetik ateratzean giltzak barruan ahaztu dituen neskaren ipuina hasi eta bukatu egin dute guztien artean.

Arrasaten, ostera, Aitor Lopez Rekartek eman dio hasiera arrasatearrei laguntzen zien dragoiaren ipuinari eta, ondoren, Txatxilipurdiko kideek eta beste hainbat herritarrek eman diote jarraipena bukatu arte.

Ipuin horiek eta beste hainbat herritan jasotakoak ikusgai jarriko dituzte astean bertan Interneteko *www.kontalaria.net* webgunean.



Gentzane eta Maren arrasatearrak ipuina kontatu ostean. | M.A.


Kulturateko aretoa bete egin zen domeka arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

# Sexualitatea naturaltasunez

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE
Sonia Villamor eta Jon Zubiaga aktoreek jolas moduan azaldu zizkieten gaztetxoei ernalketa, sexualitatea eta familia ereduen nondik norakoak.

Antzerki lengoaiaren bidez, errazagoa dela umeengana hurbiltzea kontatu zigun Villamorrek: "Lau eta bost urteko umeek ez dakite irakurtzen eta errazagoa da beraiengana gerturatzea antzerkiaren bitartez". Sentimenduak oinarri dituen antzezlana egin zuten domeka arratsaldean. "Sentimenduak gure barruan ditugun xomorrotxoak dira eta horrelaxe aurkezten dizkiegu umeei. Triste edo pozik egon gaitezkeela azaltzen diegu. Izan ere, sentimendu positiboei buruz hitz egiten diegu umeei eta negatiboak ukatzeko ohitura daukagu. Ondorioz, ez dakite nola jokatu amorrua edo beldurra dutenean". "Naturaltasuna eta erraztasuna dira umeen hizkuntzak. Horregatik, planteamendu sinpleekin azaldu dizkiegu neska-mutikoei sexualitatearen gainekoak".

Hala, zalantza gabe, bertaratu ziren guraso askorendako baliagarria izan daiteken mezua bidali zieten aktoreek.

*Kili Kontuak* ipuina Gazte Bulegoan eta Sexologia Zerbitzuan dago salgai 18 eurotan. Elkarren, aldiz, 22 eurotan.

**FITXA**

ANTZERKIA
**'KILI KONTUAK'**
**JON ZUBIAGA ETA SONIA VILLAMOR**
**Generoa:** Umeentzako antzerkia.
**Non:** Kulturateko areto nagusia.
**Eguna:** Domeka, azaroak 14.
**Iraupena:** 30 minutu.

# Sorkuntza tailerra dute pinturako ikasleek

## Manu Muniategiandikoetxea artista bergararra izango dute gidari

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE
Bihar, hilak 16, sorkuntzaren gainean ekitaldia eskainiko du Manu Muniategiandikoetxea Bergarako pintore eta eskultoreak, Kulturateko pintura gelan (18:30). Pinturaren gaineko zertzeladak eskainiko dizkie elkartutakoei eta bere lanaren berri eman.

Lehen ekitaldia umeekin egingo du eta ordu 'erdi eskainiko die: "Azalpentxo batzuk emango dizkiet eta bertan dagoen eskultura aurkeztu. Gero, batez ere aspertzen ari badira, marrazkiak egingo ditugu; izan ere, ohituta nago umeekin lan egitera".

Helduekin ordu t'erdiko bestе saio bat egingo du. Pintura eskoletako ikasleekin batera, herritarrek ere parte hartu ahal izango dute ekitaldian. Hori horrela, Bergarako artistak ez dauka guztiz garbi zelako saioa egingo duen bihar: "Ez dakit zelako maila izango duten eta horren arabera moldatzen joango naiz: oinarrizko ezagutzen gainean jardun genezake edo oraingo tendentzien gainean".

Horrez gain, bere lanaren gainean ere egingo du berba: "Atzera begiratu barik azken lanak aurkeztea dut gustuko". Pinturaren gainean orokorrean ere jardungo duela iragarri du.


Manu Muniategiandikoetxea berak egindako margolanekin. | GOIENA

Garbittu
Santa Cruz 24 behea. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
• Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
• Obra bukaerako garbiketak
• Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
• Kristalen garbiketak
• Arropa garbiketak

# Gazte sortzaileen artelanek kolorez eta musikaz jantzi dute Oñatiko herriko plaza

- Kaleko arteak ikusmina piztu zuen herriko gaztetxoen artean
- Gaztelekuko zuzeneko kontzertuek amaiera borobila eman zioten egunari

MAIDER ARREGI | OÑATI

*Kultur* egitasmoak inguruan dugun artea sustatu nahi du; helburu nagusia da talentu berriak indartzea eta ezagutaraztea. Hala, *Kultur* zirkuituak musika, zinea eta artea batu zituen zapatuan, aurtengo bosgarren eta azken saioan. Erakustaldi horretan, zenbait gazte sortzaileren lanekin aho bete hortz gelditu ziren asko. Besteak beste, Ibai Etxeberria, Juan Berrozpe, Rakel Asensi, Patricia Gomez, Igor Rezola eta Jabier Fernandez artista berrien lanekin jantzi zen Oñati.

## Artea herriko plazan

Oñatiko zapatuko hitzorduan, artearen zuzeneko erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Sekulako giroak lagunduta, zapatu eguerdian Oñatiko plaza artelanez eta jendez bete zen. Ikusmina piztu zuten artistek, eta bertaratu ziren herritarrek zuzen-zuzenean eta gertutik arteaz gozatzeko aukera izan zuten.


Piztiaken rock doinuek eman zieten hasiera kontzertuei. | JOSETXO ARANTZABAL


Herriko plazan askotariko estiloetako 12 artisten lanak izan ziren ikusgai. | J.A

Grafitiek, esaterako, gazte askorengan piztu zuten jakin-mina. Estilo oso pertsonala duten 12 artistak hartu zuten parte erakustaldian. Euretako bakoitzak barru-barrutik egindako lanak plazaratu zituen, bertan batu ziren pertsonen begiradapean. Hala, artea eta pintura jendeari hurbiltzeko helburua bete egin zuten antolatzaileek: gaztetxo bat baino gehiago marrazkiak egiteko gogoz joan zen etxera bazkal orduan, zapatu eguerdian.

## Musika eta zinea

Euskarazko film laburrak eta *Kultur Expresso* lehiaketan saritutako filmak izan ziren ikusgai kultura etxean. Ondoren, gaztelekuan, Piztiak, Gora Gora Kids eta The wedding present talde alternatibo eta indien rock doinuak izan ziren nagusi.

Antolatzaileen esanetan, asmoa da horrelako ekimenetan hasi berriak diren artistei laguntzea eta artelanak egiteko aukera ematea. Erakusketa moduan jaio zena hasiera batean, ereduz aldatuta etorri da aurten. Horregatik, artea kalera atera eta jendeari zuzenean barneratzea du xede orain *Kultur* ekimenak; eta formularekin asmatu egin dute. Izan ere, egindako artelanek jende gehiago erakartzen dute orain. Hala, hurrengo edizioan parte hartzeko interesa dutenek izena emateko aukera izango dute. Informazio gehiago eskuragarri: *kutxakulturzirkuitua.com* webgunean.




3.KONTZERTUA
azaroak
19
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK ETA ABONUAK // SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO
DOCTORS KLUB
ABADIÑO-DURANGO
ROMBOS NEGROS
BERGARA
KARPOVIAN PROJECT
MUTRIKU
EZ!
OÑATI
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
www.danbaka.com
BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK
SHOT!
PIL-PILEAN
GAURKO
laino
anboto
drogetenitturri
ANTOLATZAILEAK
goiena
espaloia

GURE MUSIKA TALDEAK

# "Ez daukagu gure egoa zuzeneko kontzertuekin elikatzeko beharrik"

- 2011. urte hasierarako kaleratuko du Disflesh talde mondragoetarrak disko berria
- Gizabanakoaren zoritxarren, harrokeriaren edota ergelkeriaren inguruko hausnarketa egiten dute




Disflesh taldea. | DISFLESH

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

2003an sortu zen Disflesh taldea. Aritz (ahotsa) eta Iñako (gainerako musika-tresnak) arrasatearrak dira taldekideak. Biek ala biek beste talde batzuetan ere dihardute eta datorren urte hasieran kaleratuko dute Disflesh taldeko disko berria.

Urte dezente daramatzate musikan eta oraindik ere, Disflesh taldeaz gain, beste hainbat taldetan parte hartzen dute. Gaur egun, Aritz, Numen eta Darkness By Oath taldeko abeslaria ere bada. Iñakok, bestetik, hainbat proiektu ditu eskuartean: Daemonlord (blackmetal) taldeko kide da eta 2011n euren laugarren diskoa editatuko dute. Bestalde, Desert Of Doom izeneko lan pertsonal batean ere badabil lanean. D-beat/Crust musikaren barruan kokatzen da Disflesh, 2003an sortua. "80ko hamarkada hasierako eragin britainiarra dela medio, Japcore eta Metal/Punk estiloen ukituak ditugu" dio Iñakok.

Talde erreferenterik ez dutela diote, zerbait transmititzen eta eskaintzen dituzten taldeak entzuten dituzte, musika-mota bat zein bestea izan.

**Diskoa urte berri hasierarako**

Diskoaren edizioaz arduratuko direnen arabera dagoen arren, 2011 urte hasierarako kalean egotea da asmoa. "Lehendabizi, post produkzioaz arduratzea da gure helburua eta behin hori kontrolpean izanda, diseinuarekin hasiko gara" dio Iñakok.

Gai belikoen inguruko letrak biltzen dituzte. Gizabanakoaren zoritxarrak, ergelkeriak, harrokeria… eta horrek guztiak zein norabide hartzera garamatzan inguruko hausnarketa planteatzen dute.

12-15 kantu izango ditu diskoak eta letrak, beti bezala, ingelesezkoak izango dira.

**Zuzeneko kontzerturik ez**

Disflesh taldeak ez ditu zuzeneko emanaldiak eskaintzen. Grabatu bai baina ondoren jendaurrean ez dituzte euren abestiak jotzen. Iñako taldekideak argi dauka arrazoia: "Ez daukagu gure egoa elikatzeko beharrik, egia esan, bost axola zaizkigu Disfleshen zuzeneko kontzertuek. Aritzek bere taldeekin zuzenean jotzen duen arren, nik nahiago dut lokalean orduak sartu, abestiak egiten, grabazioak egiten eta azken finean, egunetik egunera ikasten".

"Disko berria kaleratzean, jarraitzaileen erantzuna orain arteko berbera izatea da espero duguna. Beraiek badakite nolakoak garen eta nola funtzionatzen dugun eta orain arteko erantzun berbera espero dugu. Gustuko ez gaituztenen iritziek ez digute ardura".

Diskoaren saltokiak oraindik zehaztuta ez dituzten arren, split-CDa lor daiteke dagoeneko. Honako hauetan entzun dezakezue: Hecatombe Records-en (*www.hecatomberecords.com*); taldearen web orrialdean: *www.disflesh.com* helbidean; edota muturreko musikako edozein katalogotan.

KRITIKA




**WAR WOULD BE DISASTROUS**

**Estiloa:** Hardcore-Crust-a.

**Argitaletxea:** Hecatombe records.

**Iraupena:** 40,14 minutu.

## Eskola zaharreko Crust-a

Iñako musikari beteranoak luzaroan landutako doinu ilunagoak alboratu ditu eta hegoaldeko paramoetatik hastapenetako hardcore-crusta berreskuratu du ingelesez abestutako kantuetan. Estilo hau 80ko hamarkadan landu zen hobekien Europan eta doinu hauekin hazi zen taldearen bultzatzailea; horregatik, ez du zailtasunik izan sasoi hartako izpiritu hori bere horretan berreskuratzeko. Amorrazioz betetako piezatan gerra, hondamendia eta gizakiaren ergelkeria dituzte berbagai. Gainera, hainbat bertsio oparitu dizkigute: estilo honetako eredu diren Discharge eta Amebix alde batetik; baita Upright Citizens-en bertsio bana ere.

IKER BARANDIARAN

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxea saltzen da abadiñoko Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Dena kanpoalderuntz ematen du. Oso polita. Deitu eta ikusi! telefonoa: 615-00 72 16

**Arrasate.** Erdialdean 65 m2ko etxebizitza salgai. 3logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu.603-79 60 95

**Arrasate.** 47 m2ko etxebizitza salgai Erguinen. Egoera ezin-hobean. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 148.000 euro. 649-70 33 83

**Arrasate.** San josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. etxerakomodukoa@gmail.com.

**Bidegoian.** Etxe bifamiliarra salgai Bidanian. Oso egoera onean, orain dela 5 urtekoa. 3 logela, sala ederra tximiniarekin, sukaldea, 2 bainugela eta garajea ditu. 100 m2koloratégia du. Sartzeko prest dago. 656-74 84 15.

**Bilbo.** Pisu haundia eta eguzkitsua saltzen da Bilboko Basurto auzoan. Hospitaletik gertu eta tren geltokiaren ondoan. Basurtuko beheko partean dago, Indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera paregabea! 635-72 79 37

**Durango.** 94m2ko etxea salgai, herriko Gudarien plazan (osasun etxezaharraren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekin. 343.000 euro (57m). 615-76 08 01.

**Elorrio.** Salgai.Berriotxoa kalean berriztuta dagoen jauregian, 70m2. Ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, 9m2ko trasterua, 19m2. Ko garaje itzia. Dena 303.000 euro eta trasteru eta garaje barik 283.000 euro. Nagore: 653-74 80 01

**Etxarri-aranatz.** Etxea errentan edo salgai.654-23 41 02.

**Etxarri-aranatz.** Familia bakarra salgai. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bajera, loratégia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. 637-53 86 15

**Etxarri-aranatz.** Arkuetabide 1 kalean Jantzita eta prest bizitzera sartzeko. 3 logela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 948-24 41 97 / 696-19 43 17.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bakardadeko Ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 m2, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 euroan. 659 72 06 64

**Oñati.** Santa marina plaza inguruan 60 m2koetxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 metro koadroko ganbara, duplexa egiteko aukerarekin. Guztira: 120 m2. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 275.000 euro, negoziagarriak. 610-97 04 32

**Tolosa.** 96 m2ko etxebizitza ederra. 150 m2ko ataria eta 55 m2ko bordarekin. Bordak argia, ura eta bainugela berria ditu eta txoko bezela jarri edota ospakizunak egiteko erabili daiteke. Tolosatik 5 minutura dago eta izugarrizko ingurunean. Prezio berezia, jabearekin zuzenean. 670-20 52 99.

**Tolosa.** Tolosako alde zaharrean 50 m2ko atikoa salgai. Egoera onean eta oso argitsua. Igogailua badu. 119.500 euro(19,9 m pezeta). 943-43 00 20Zuzeneko salmenta.

**Zegama.** Goierrin, landaturismorako berritutako baserria salgai. (100m2ko hiru solairu) 6 logela bikoitz bainugelekin eta norberarentzat apartamentua -sarrera propioarekin-. Bikain hornitutako sukaldea. 10000m2ko lur saila. Salmenta premiazkoa denez, prezio egokia dauka. 13:00etatik 15:00etara,658735175.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Arrasaten edo inguruetan 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat. 615-71 04 68.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** AltamiAnbotoko magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etik aurrera deitu. 620 10 52 63

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21

**Durango.** Gela bat daukat libre, etxea astelehenetik ostiralera partekatzeko asmoarekin. 658-72 45 90 Rober.

**Durango.** Pisua errentan: 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrak. 4. Pisua, igogailu eta berogailuagaz (gas naturala).638-12 58 38

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokagai edo salgai.654-23 41 02.

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna. 636-66 08 76

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokatzen da. 615-83 40 28

**La mongie (Frantzia).** Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606-39 70 81

**Luz Saint-Sauveur.** 55 metro koadroko duplexa ematen da errentan Luz erdigunean. Neguko denboraldi osorako. 6 pertsonentzako. 665 70 04 87 edo 671 07 12 48

**Oñati.** Plazatik 100 metrora 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. 450 euro hilean. 687329957

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 663 69 31 16

### 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Etxebizitza behar dut errentan. Arrasaten ahal bada. Hilean asko jota 500 edo 600 euro ordain dezaket. 639-94 48 65.

**Antzuola.** Edo inguruan etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 603-62 08 84

**Durango.** Alolatzeko pisu bila nabil Durangon edo inguruetan. 637-14 41 62. Momo.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko.670-59 73 62

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. 610-82 02 17.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**
**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean edo astelehenean: 21 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat edo beste edozeinentzat. 648-86 05 49 edo 666-68 00 04.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Arrasaten. Nahi duenak deidezala, mesedez, 18:00etatik aurrera 943-53 21 62 telefono zenbakira.

**Azkoitia.** Erdigunetik gertu eta leku lasaian; etxekide bila, 2 logelako etxe baterako; 30 urteko neska. Etxebizitza igogailuarekin, etxe eguzkitsua eta balkoiarekin, egongela, bainua eta sukaldea partekatzeko. 350 euro -gastuak barne (telefono, berogailu eta wifi zerbitzua ere barne). 629-08 84 02.


Korosti
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 m². 237.399 ?.
- Masterreka. 88 m². Igogailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m². Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000 ?.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 ?.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888 ?.
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 ?.
- Aranerreka 80 m². 189.319 ?.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- AUKERA. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 ?tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805** eurotik **aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.



**DEBA GARAIA**
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m². Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.


**Azpeitia.** Alokairuan herritik hurbil, leku paketsu eta lasaian: egongela eta jangela balkoi handiarekin, sukaldea, 2 komun eta 4 logela argitsu ekipaturik. 943-81 34 13 eta 606-07 48 31

**Getaria.** 4 logelako etxebitza haundia, egoera oso onean. Bi pisukideren bila gabiltza. 647-06 30 52

**Ziortza-bolibar.** Gela alokairuan Bolibarren 150 eurotan. 660-35 80 67

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Durango.** Garaje partzela bat saltzen da Alluitz kalean, 3. Zenbakian. 22.000 euro. 636-33 82 46. Amaia

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 metro koadro (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. 616 15 63 73

**Arrasate.** Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 94324535 edo 615739830

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. zenbakia. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Estherrengatik galdetu. 665 70 66 73

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55.

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 180 (90+90) Metro koadroko lokala salgai Labegaraietan. Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa: 130.000 euro. 627 53 78 61 edo 627 53 78 62

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokal bat erosiko nuke, 25-120 m2 bitartekoa. 943-79 66 75.

**BERGARA**
Tabeerna salgai erdigunean.
676 22 33 18

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Baserriko lanak egiteko eta pertsona heldu bat zaintzeko pertsona/bikote bat behar da Arrasaten. Baserrian bertan bizi izateko baldintzarekin. 635 20 77 91

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58

### 402. ESKAERAK

**Alegia.** Astegunez eta goizez lan egin nahiko nuke Alegia, Tolosa eta Ordizia inguruko herriren batean, zaintzaile moduan, etxeko lanak egiten, zerbitzari... Esperientzia dut. Deitu 616-07 70 06.

**Alegia.** Neska euskalduna, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest nago. Tolosaldean edo goierrialdean. Esperientziaduna! 618-17 46 36

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635-00 58 17

**Arrasate.** Arrasate eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679-73 92 66

**Arrasate.** Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdititulua daukat. 661-35 49 28

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618-41 24 79

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxan edo etxeko garbitasuna egiteko, orduka, arratsaldez. 699-54 17 27.

**Arrasate.** Neska euskalduna, esperientzia handikoa umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 659-81 59 15.

**Aretxabaleta.** Eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607-73 16 78

**Beasain.** Emakume euskalduna prest dago adineko pertsonak zaintzeko. 943-18 02 53

**Beasain.** Neska batek lana bilatzen du orduka: pertsona helduak zainduz, umeak zainduz, garbiketa lanak.. Erreferentziak dauzkat. 649-07 31 33

**Bergara,** Antzuola edo Zumarraga. Neska bat gertu dago etxeak, elkarteak eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia.943-76 66 24 edo 634-91 81 73.

**Bergara.** Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna. 615-71 99 39

**Bergara.** Bergaran haur hezike-ta ikasi duen emakume euskaldun bat umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943-53 42 54 edo 688-65 30 62

**Bergara.** Emakume bat gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610-34 97 88.

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. 671-44 81 51

**Bergara.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. 673-22 38 00

**Bergara.** Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686-11 24 66

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 665-75 41 32

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany. 630-94 65 76

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 606-78 35 94

**Debagoiena.** Neska bat etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo nuke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat, baita paper guztiak behar bezala ere. 943-53 36 72 edo 677-73 79 59

**Debagoiena.** Neska gertu etxean zein egoitzatan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. 629-80 77 73

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut.Deitu 638-93 11 48 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko edo tabernetan lan egiteko. 648-46 90 51

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. 626-78 22 95

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663-46 93 60 edo 943-08 11 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654-98 69 14

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610-60 62 29

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671-15 96 97

**Debagoiena.** Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610-99 70 46

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 648-01 40 94 edo 943-08 20 79

**Debagoiena.** Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere.666-21 88 95

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da asteburutan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. 699-09 46 26

**Debagoiena.** Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654-98 69 14

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa edo bestelako laneran jarduteko. 689-88 80 23

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. 645-69 36 51

**Debagoiena.** Lokal, baserri eta denetariko egoitzak garbitzeko prest. Deitu 675-70 00 02 edo 665-70 10 57 zenbakietara.

**Debagoiena.** Musika jartzen dut ezkontza ta festetan. Prezio interesgarriak. nahiz13@gmail.com 663-72 78 23

**Durango.** Durangon edo inguruetan, umeak eta nagusiak zaintzeko. Paperekin.Deitu 628-00 22 17 zenbakietara.

**Durango.** 27 urteko neskak, goizez umeak zaintzeko edo dendetan lan egiteko prest. Esperientziarekin. Deitu 665-71 74 58 telefonora.

**Durango.** Neska euskalduna umeak zaindu eta garbiketa lanetan aritzeko prest.Deitu 619-20 11 19 telefonora.

**Gipuzkoa.** Emakumea gertu orduka lan egiteko garbiketan, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. 606-74 16 15

**Lazkao.** Etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da goizetarako. Lazkao, Beasain eta Ordizi inguruan. Deitu 669-36 06 27 telefono zenbakira.

**Oñati.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest Deitu 606-15 11 47 zenbakira.

**Tolosa.** Publizitate eta harreman publikoetan lizentziatua. Udaleku eta aisialdiko ekintzetan esperientzia zabala, bai begirale zein koordinatzaile bezala. Garbiketa produktuen banaketan esperientzia biltegi batean. B1 gidabaimena. Ega agiria. Fce (first) ingelerako agiria. Informazio gehiago:aitzol21@gmail.com665-73 43 06

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Deitu 658-73 08 08 telefonora.

**Zarautz.** Txakur hezitzaile ikasketak burutzen ari den mutila txakurrak hezi eta paseatzeko prest. Zumaia, Zarautz eta Eibar inguruetan. Urrunago mugitzeko aukerarekin. 645-72 43 97. josu. ae@hotmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Bigarren batxiler artistikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 628 77 58 28

**Bergara**. Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48

**Debagoiena.** Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617-93 83 39

**Euskara klaseak.** 7 urtetako atzerritar mutiko bati, euskarazko klaseak emango dion norbait behar dugu astean 2 orduz komunikatzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin. 673937694

**Italierako eskolak** emango dizkidan norbaiten bila nabil. 685 73 06 80

**Kontabilitate eta ekonometria** eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 653-01 76 67 zenbakira.

**Arrasate.** Debagoienean matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. Dbh eta batxilergo mailak. 696-38 10 07

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak, sei urtetik aurrera. Deitu 688-64 12 56 telefono zenbakira eta Arantxarengatik galdetu.

**Arrasate.** Ikasgai guztietan eskola partikularrak ematen ditut. Lehen hezkuntza, dbh... Aisialdi titulua daukat. Deitu 661-35 49 28 zenbakira.

**Arrasate.** Neska euskalduna lhko eskola partikularrak emateko gertu. 615-76 19 82

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Arkitekturan izentziaduna eskola partikularrak emateko prest, dbh eta batxilergo mailetan. Esperientziaduna. 639-46 07 26

**Bergara.** Dbhko eskola partikularrak ematen ditut. 20:00etatik aurrera deitu. 943-76 03 75 edo 605-26 24 62

**Bergara.** Bergaran ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654-94 87 26

**Bergara.** Irakasle esperientziadun batek Lh eta dbhko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko first ziurtagiria du. 636-16 30 10

**Bergara.** Neska euskalduna, haur hezkuntzan diplomaduna, lehen hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Harremanetan jartzeko deitu: 676-41 12 58

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza dut ingelesa. 696-63 97 48

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut eta euskaraz ere badakit. 682-64 57 37

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut. 682-64 60 99

**Debagoiena.** Neska euskalduna, irakaskuntzan diplomaduna, lehen hezkuntzan eskola partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 652-73 14 44

**Debagoiena.** Neska gaztea euskera, ingles edo gaztelaniako klaseak emateko prest. 628-87 02 43/ 628-87 02 43 edo 943-79 85 01

**Debagoiena.** Eskola partikularrak ematen dira. Irakasle ikasketetan eta logopedian diplomatutako neska euskalduna naiz. Lehen hezkuntzako arloan zein hizkuntza arazoetan. Harremanetan jartzeko deitu 659-92 89 23 edo 943-79 39 19 zenbakietara.

**Donostia.** Klasepartikularrak lehen hezkuntza eta dbhko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

**Donostia.** Unibertsitateko ikasle bat haurrei eskolako lanetan laguntzeko prest.Harremanetan jartzeko: 687-67 49 10.

**Durango.** 4. mailako TelekomunikazioIngenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Harremanetan jartzeko: 635-74 61 76

**Durango.** Ingelera magisteritzan diplomatua, klase partikularrak emateko prest. Harremanetan jartzeko: 619-20 11 19

**Elorrio.** Haur eta gazteentzako laguntza eta helduentzako euskara azterketen prestaketa. 675-70 61 05

**Gasteiz.** Ingeles filologiako 2. Mailan nagoen neska euskalduna naiz. Haurrak zainzeko edota klase partikularrak emateko prest nago lehen hezkuntzan zein DBHn. Ega titulua dut eta haurrekin esperientzia. 696-21 59 39 (Ane) etxebe_2@hotmail.com

**Oñati.** Irailetik aurrera klase partikularrak ematen dira. Esperientziadun irakaslea naiz eta banaka edo talde txikiak hartzen ditut, l. H., D. B. H. Eta batxilergoko mailetan. Ikaslearen edo irakaslearen etxean. 649-27 63 50 edo 943-53 28 15

**Oñati.** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. Dbh nahiz lanbide heziketako ikasleei. Harremanetan jartzeko: 646-42 13 63

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako irakasle ikasketak amaitzear dagoen esperientziadun neska arduratsu bat haurrak zaindu edota eskola partikularrak emateko prest. 620-00 89 25

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna.664-16 02 68 continental56@hotmail.com

**Zarautz.** Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein arlo. Gipuzkoa osoan aritzeko prest. Irakasle moduan esperientzia. Euskaltegiko irakaslea. Irakasle titulua eta euskarako laugarren hizkuntz eskakizuna. 645-71 85 78.

**Zarautz.** Euskarako edozein hizkuntz eskakizun (EGA eta laugarren he barne) atera nahi duen orori eskola partikularrak emateko prest. Gipuzkoa osoan. Euskaltegiko irakaslea naiz, eta 4. He daukat. 645-71 85 78

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroen Xsara.** Xsara 2000 HDI 90 zaldi. Jabe bakarra. ABS gorria. 656-79 10 27

**Mercedes Viano** CDI 2.2 Ambiente. 150ZP. 7 lagunendako eserlekuak. Olio azterketa 2010eko urrian eginda. 2008ko urrian matrikulatua. 30.500 euro. la berria. 688652119

**VW transporter** furgoneta salgai. 1,9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udalekozerga 2011ko ekainera arte ordainduta. Iat (ITV) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 €. 678-60 42 02

**Yamaha jog scooter bat salgai.** 2.000 km. Iata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena orijinala. Beti egon da garajean. 650-17 22 85 stratokaster@gmail.com.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita.656-77 29 94

**Baserriko oilaskoak salgai.** 4,50 eurotan (osoa). 655-99 84 02

**Indioilar beltzak salgai.** Urtebeteko bikote bat eta hiru hilabeteko hiru bikote. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-79 96 55.

**Persiar katakumeak salgai.** Irailaren 9an jaiotakoak. Zuriak. Oso maitekorrak dira eta pentsua jaten hasi dira jada. Bi ar eta eme bat. Ikusteko aukera. 943- 79 96 55 edo 685-72 46 86

**Rottweiler txakurkumeak salgai.** Espainiako txapeldunen kumeak dira. 605-75 91 42

### 703. EMAN

**Arrainontzia opari.** Arrainontzi borobila ematen da opari, koloretako bi arrainekin, debagoienan. 671-84 15 63.

**Bi katakume oparitzen dira.** 651-81 12 30

**Bi txakurkume oparitzen dira.** Bi pastor aleman. Nahi dituenak dei dezala 696-79 31 67 zenbakira.

**Cocker ingelesa ematen da Arrasaten.** Ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria da, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. 943-79 82 43 edo 943-79 97 17

**Katu xarmagarriak.** Katu batekin bizi nahi? katu abandonatuak zaindu eta doan ematen dizkiegu pertsona arduratsuei. Maitagarriak eta polit-politak dira; haien urrumek kezka guztiak gutxiagotuko dizkizute, eta nolatan ez zenuen etxera lehenago ekarri pentsatuko duzu. Ikus gaitzazu gure interneteko helbide honetan: www. esperanzafelina.com Deitu 650-80 76 72 zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra, "Kanel".** Uberan desagertu egin da. Lepokoa laranja,aurreko ezker anka okerra. 617 57 25 43 edo 697 721 836.

**Arratoi txakurra desagertu da.** Arratoi txakurra (Kanel), Uberan desagertu egin da. Lepokoa laranja, aurreko ezker hanka okerra. Ikusten baduzu, deitu, mesedez 617-57 25 43 edo 697-721 836.

**Bi txakur desagertu dira.** Bi txakur desagertu dira orozketan. Artzai-txakur alemana bata eta golden eta euskal artzai-txakurraren arteko nahasketa bestea. 685-70 87 18. Fatima

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etatik aurrera deitu. Oñatin.619 81 70 72

**Akordeoia salgai.** Akordeoia salgai. 120 baxu, B-14C. Murriztua. 647-51 52 80

**Bizikleta salgai.** 24 hazbeteko bizikleta erosiko nuke. 696-84 34 38

**Eskopeta errepikatzailea salgai**, Antzuolan. Egoera onean. Prezio merkea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 69 84 99

**Euritako plastikoa eta zakua salgai (polarra).** Euritako plastikoa eta zakua salgai (polarra). Jane etxekoak eta egoera oso onean. Matrix edo maxicosirako. Biak 60 euro. 607-06 22 20

**Gurpildun aulki elektrikoa salgai.** Egoera paregabean. 1.500 euro. Arrasaten. 677-38 85 64

**Haurrak eramateko mendiko motxila salgai.** Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-12 43 38

**Home Cinema** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara:943 79 60 89

**Karabana** salgai. Adria Unica D-391-DK. Ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 85 74 43

**Klarinetea.** salgai. Deitu 617 80 87 85 zenbakira.

**Kotxe-kapota.** Hiru gurpileko bebecar kotxe-kapota eta bere aulkia saltzen dira. Egoera oso ona. Urdina. Euriarendako plastikoa. 90 euro. 656-73 54 80

**Lowepro primus AW.** Mendira joateko oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa (70-200 mm-raino). Gainera, beste bi objektibo edo flasha ere sartzen dira. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. 667-95 73 16

**Pianoa salgai.** Paretako piano marroia salgai. Cherny etxekoa. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607-06 22 20

**Piraguarako anoraka.** Berri berria dago, artistic markakoa, mikroporeskoa , M tailakoa eta semi-lehorra. 679-10 95 23

**Surf taula saltzen dut.** Minimalibu (7,3) taula berria da, bic markakoa. 270 euroan. (grip+killak+leash+ nylonezko funda) arrazoia: beste bat erosi nahi dudalako. 605-73 07 77

**Umea eramateko motxila.** Baby borjn etxekoa. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 80 €. 607-06 22 20

### 802. EROSI

**Bizikleta.** 24 hazbeteko bizikleta erosiko nuke. Deitu zenbaki honetara:696 84 34 38

**Patinetea eroskiko nuke.** Bergaran, bigarren eskuko patinetea erosiko nuke. Deitu 639034358 zenbakira.

**Trabesiako eskiak erosi.** Bigarren eskuko eski ekipoa. Nire altuera: 1,60 m. Eta hanka: 40. Merke edo zerbaiten trukean. 627-50 63 80

### 803. EMAN

**Arrainontzi** borobila ematen da opari, koloretako bi arrainekin, Debagoienean. 671 84 15 63

**'Pyrenaica' aldizkariko** zortzi ale ematen ditut. 658 71 44 37 kendu negrita

### 804. HARTU

**Bikientzako karroa.** Ama batzuen artean gure seme-alaben zainketak antolatzeko, bikien edo hirukien kalerako karroa beharko genuke. Norbaitek era horretako karroa trastelekutik atera nahiko balu, gustura hartuko genioke edo oso merke erosi. 659-99 07 40 edo oini78@hotmail.com(Oihana).

**Plastikozko moto ttikia hartu edo erosiko genuke** Urte eta erdiko haurrarentzat; oinekin eraginda bultzatzen diren horietakoa (bi neurri daude: ttikiena nahi genuke). 2. eskukoa. 615-72 42 43

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Sudadera galdu zuen umeak Durana kalean, urriaren 23an. Gorria da eta DC markakoa. 695 72 84 75

**Aretxabaleta.** Patinetea galdu zuen umeak Hirusta inguruan, irailean. Zuria eta morea da . 675 70 82 36

**Arrasaten zilarrezko eta perladun brotxea.** Zilarrezko eta perladun brotxea galdu nuen urriaren 23an (txikitxu-arrostaitz dantza emanaldia egon zen egunean) uarkape pilotaleku inguruan. Norbaitek aurkitu badu, dei diezadala, mesedez. Sarituko da. 627-23 11 50 edo 943-79 21 15

**Aterkia galdu dut Bergaran.** Domekan aterki txuri-beltza galdu dut, Simon arrieta, juan XXIII enparantza eta Ariznoa tabernan bitartean. Çcallate la bocaÈ markakoa. 659-76 08 81 edo 646-48 05 39

**Aterkia** galdu nuen domekan Bergaran, Simon Arrieta, Juan XXIII.a plaza eta Ariznoa tabernan artean. Zuria eta beltza da. Callate la Boca markakoa da. 659 76 08 81 edo 646 48 05 39

**Liburuak.** Joan den ostiralean, azaroak 5, Arrasateko Udal Liburutegiko poltsa bat galdu nuen Herriko Plazan edo inguruetan. Poltsa barruan bi ipuin eta umeendako bi DVD zeuden (liburutegikoak). Aurkitu baduzu, deitu, mesedez, telefono honetara. Eskerrik asko. 619 87 57 48.

**Patinete bat galdu da Aretxabaletan.** Eguzki tabernako plazan. 943-79 58 98 edo 618-49 28 56.

**Sudadera galdu dut Aretxabaletan.** Sudadera galdu zuen umeak durana kalean, urriaren 23an. Gorria da eta dc markakoa. 695-72 84 75.

**Urrezko katea.** Bergarako Domingo Irala kalea eta Telesforo Aranzadi artean urrezko katea eta zintzilikaria galdu nuen. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu. Ordainsaria egongo da. Teresa.649632324 edo 696381007

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Ume baten patinetea aurkitu dute. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 943 79 86 21 Deitu goizez.

**Larruzko txaketa.** Larruzko txaketa beltz bat aurkitu nuen larunbat gauean Bergaran, Simon Arrietako aldapan.Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 660686841.

**Zira** bat aurkitu nuen urriaren 7an trenbidean. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 663 04 35 05

**Xira baten kapela topatu dute Etxarrin.** trenbiderako bidean, zubi ondoan. Urdin argia da. Galdu duenak beleixe irratian dauka jasotzeko.

### 808. BESTELAKOAK

**Autoa partekatu.** Goizeko 8:00etarako gasteizen egoteko, autoa edo gastuak partekatzen dira. Bueltarako aukera ere badago. Interesatuok deitu zenbakira: 635-71 73 58.

**Zarautzera lanegunetan.** Tolosaldetik edota Goierritik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7etatik 8etarako tartean; handik, bueltan, 15etatik 16etara. 688-60 67 15.

**Boluntarioak behar dira.** Asebi elkarteak boluntarioak behar ditu, elkartean bertan laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-78 23 65 eta 94-447 33 94.

**Eskerrik asko.** Epiritu santuari jasotako mesedeagatik.

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. Deitu 602-12 03 47 telefonora.

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef.:943-01 07 00 / Mug.:665-71 8596
www.inmosalbide.com

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Altua eta egoera onean. 51.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
**AMARA** 3 logela, suakldea, egongela, bainugela. Kanpora. 750 €
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 1.100 €
**PASAI ANTXO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 790 €
**URNIETA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 650 €
SALMENTAN
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Negoziatu daiteke. 49.990.000 pta
**AMARA** Ferrerias. Logela, sukaldea, egongela, binugela. Sartzeko. 46.500.000 pta
**AMARA** Altua. Terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. 51.500.000 pta
**AMARA** Azkena terrazakin. Hegoa. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 54.000.000 pta
**AMARA** Kanpora. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berritua. 57.800.000 pta
**GROS** Hondartzatik hurbil. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 39.500.000 pta
**GROS** Apartamentu polita. Logea, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 50.500.000 pta
**INTXAURRONDO**. 2 logela, sukaldea, bainugela. Bista politak. Berritua. 39.800.000 pta
**LOIOLA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Altua. Igogailua. Bistak. 32.000.000 pta
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 59.800.000 pta
**EGIA** Karmengo ama. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 42.950.000 pta
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 41.600.000 pta
**MARTUTENE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 29.990.000 pta
**HERRERA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta
**BIDEBIETA** 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. 33.100.000 pta
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.990.000 pta
**MARTUTENE** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Sartzeko 22.000.000 pta
**TRINTXERPE** Pisu polita. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 27.000.000 pta
**PASAI DONIBANE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.200.000 pta
**PASAI ANTXO** Atikoa berritua. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 23.900.000 pta
**ERRENTERIA** Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 27.990.000 pta
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## Firefox nabigatzaileak bederatzi urte bete berri ditu azaroan

2004ko azaroaren 9an jaio zen Firefox nabigatzailea. Internet Explorer nabigatzailea baino seguruagoa eta arinagoa bezala merkaturatu zuten.

Egun, munduko bigarren nabigatzaile erabiliena da Firefox, %31,5ak erabiltzen du-eta. Dagoeneko laugarren bertsioaren beta edo probarako bertsioa kalean dago. Hala, Firefox 4, behin betiko bertsioa, datorren urte hasieran kaleratuko da eta HTML5a izango du barneratuta.

## Apple-1, Steve Jobsek eskuz egindako lehen ordenagailua

Apple etxeko lehen ordenagailua 1976an egin zuen Steve Jobsek bere etxeko garajean. Apple-1 izeneko ordenagailuari, 8K-ko memoria jarri zion Jobsek.

Apple-1 MOS 6502 a 1.0MHz prozesadorea zuen lehen ordenagailua izan zen eta irakurtzeko eta idazteko kassette bat zeraman txertatuta. Orduan, 666 dolar balio zituen; egun, 240.000 dolar balio dituela diote adituek.



Apple-1 ordenagailua | APPLE.COM

## Twitterreko erabiltzaileak jantziagoak dira

AEBetako enpresa batek egin berri duen ikerketaren arabera, Twitter erabiltzaileek ikasketa maila altuagoak dituzte.

Hain zuzen ere, Twiterreko erabiltzaileen % 30ek unibertsitate ikasketak dituzte. Ikerketak gaineratzen du, prestaketa handiagoa izatean, diru gehiago ere badutela.

## Hedabideen eta sare sozialen gaineko jardunaldia

CodeSyntax enpresak antolatutako jardunaldian, Twitter sare sozialak, komunikazioan daukan eraginaz hausnartuko dute. Hilaren 17an, eguaztenean, izango da 16:00etan hasita, Eibarren.

Gainera, hedabide molde berriak, Twitter komunikatzeko formatu gisa eta Umap proiektuaren aurkezpena ere egingo dute bertan.



Uberan.org webgunearen bideo atala.

# 'Uberan.org', euskal literaturazaleen bilgunea

### Uxue Alberdi eta Oier Guillanek sustatutako atariak irakurle eta idazleen arteko zubi izan nahi du

**MAIDER ARREGI** | BERGARA

*Hitzen Uberan* webgunea, euskal literatura eta literaturazaleen sareko bilgunea edo plaza dugu. Liburuetan ez ezik, literatura, "erakusketetan, hitzaldietan, kantuetan, errezitaldietan, iragarkietan, telesailetan eta beste mila lekuetan ere" badagoela diote Uxue Alberdi eta Oier Guillan webguneko arduradunek. Hala, topaketa horien emaitza dugu *uberan.org*.

**'Hitzen uberan'**

Guztira, bederatzi atalez osatu dute webgunea. Guztiek ere, itsas zaporedunak: *Periskopioa*, *Nabigazio karta*, *Amuak*, *Kofradia*, *Gatzetan gordeak*… Webgunearen azala egunero aldatuko da eta ilustratzaile edo argazkilari batek egindako irudia izango du idazle baten testu labur batez lagunduta. *Aingura hegodunak* atalean, edonork bidalitako idatziak, argazkiak edo bideoak jasoko dira. Sormen lanendako leihoa da. *Periskopioa*-n, berriz, bideoak batuko dira.

Irudiak ez ezik, audioa ere jasotzen da *Gatzetan gordeak* atalean. Albiste, elkarrizketa eta erreportajeen biltegia da. *Testuketan* irratsaioko elkarrizketa eta kolaborazio guztiak ere bertan batu dituzte.

Eduki berrienak *Kaian* izango dituzue ikusgai. Erabiltzaileendako eztabaida gunea ere badago *Kofradia* izeneko sailean. Asmoa da, bai idazleek eta irakurleek ere euren iritziak eta inpresioak tartekatzea eta banatzea elkarrekin.

Euskal literatura izango da webgunearen muina, baina sortzaileen arteko zubi ere nahi du izan. Horiek horrela, argazkilariak, irudigileak, musikariak… ere izango dute lekurik *uberan.org* helbidean. Liburuetatik kanpo ere badela literaturarik erakutsi nahi dute Alberdik eta Guillanek proiektu honen bitartez. Eta noski, Twitter, Facebook eta YouTube webguneetarako ere zuzeneko lotura badago.

# 'Deskontu.com' webguneak, Gipuzkoako eskaintza erakargarriak batzen ditu sarean

### Egunero, Gipuzkoako enpresa, zerbitzu edo produktu baten deskontua aterako da webgunean eta 24 orduko epea izango da produktua erosteko

**MAIDER ARREGI** | BERGARA

*Deskontu.com*, egunerokoeskaintzen gaineko webgune berria da. Egunero, Gipuzkoako enpresa, zerbitzu edo produktu baten deskontu edo eskaintza bat aterako da. Erabiltzaileak 24 ordu izango ditu eskaintza hori erosteko.

Behin erosi ondoren, deskontu hori erabili ahal izateko epea enpresa bakoitzak jarriko du. Astebete, hilabete, hiru hilabete, sei… eskaintza bakoitzaren arabera izango da.

Erabiltzaileari eskaintzen dena interesatzen bazaio erosi eta kode bat iritsiko zaio posta elektronikora. Behin eskaintzaren 24 orduak pasatuta joan daiteke, kodearekin, zerbitzu edo produktua eskuratzera.

Beti ere enpresak jarritako baldintzak betetzen badira. Eskaintza baliagarri izateko erosle kopuru minimo bat behar da, eta kasu bakoitzean minimo hori aldatu daiteke.



'Deskontu.com' webgunea.

**Euskararekiko konpromisoa**

*Deskontu.com* webgunearen egileek azaldu dutenez, oraindik beta fasean dago ataria eta eduki asko gazteleraz dagoela oraindik azaldu dute. "Proiektu hau bere lehen pausuak ematen hasia dago euskaraz. Helburua da, euskararen erabilera txukuntzen joatea eta ahalik eta hobekien itzulita egotea", azaldu du Goio Telletxeak *Sustatu.com* atarian, zenbait kritikei erantzunez.

Bestalde, Interneten euskara bultzatzen ezinbestekoa dela nabarmendu du Telletxeak.

## TELE-ALBISTEAK

### Azken egunotako denboraleak utzitako irudiak eitb.com-en

Haize eta euri bortitzek itsasoa guztiz aztoratu dute azken egunotan, olatu erraldoiak sortuz. Eguraldiak irudi benetan ikusgarriak utzi dizkigu Euskal Herriko kostaldean. Ikusgarria bai baina arriskutsua ere bada olatuak gertu-gertutik ikustea. *Eitb.com* atariaren bitartez etxetik ikus ditzakezue igaro asteko Zarautzeko eta Donostiako irudiak.

### Filmak arrakasta izan arren, ezin soineko motz batekin lehiatu

Arrakastatsua den film baten aurkezpenak alfonbra gorria merezita izan ohi du. Hala ere, askotan filma itzalpean gelditzen da alfonbra zapaltzen duenak arreta bereganatzen badu. Gutxi batzuk gogoratuko ziren *Harry Potter*-en pelikula berriarekin, filmeko Emma Watson aktorea lumadun soineko beltzarekin agertu zenean.

### 'Gran Via' zarzuelako lehen saioen ondoren, asteburuan berriz

Zarzuelako lehen bi emanaldiak izango dira asteburu honetan, hilaren 20an eta 22an. Egubakoitzean eta zapatuan izango dira azken bi saioak; egubakoitzean arratsaldeko 20:00etatik aurrera eta zapatuan, berriz, 19:30etan. Zarzuelako kide batzuk Arrasate Irratian izan ziren aurtengoari buruz berbetan eta *goiena.net* atarian duzue laburpentxo bat.

### Bon Jovik eskainiko duen kontzerturako sarrerak salgai

John Bon Jovi Euskal Herrira dator. Uztailaren 29an izango da kontzertua Donostiako Anoeta Estadioan. Salmenta hasi eta lehen zortzi orduetan 10.000 sarreratik gora saldu ziren. Beraz, bizkor ibili New Yerseyko taldea zuzenean ikusi nahi baldin baduzue. Sarreren %80a internet bidez salduko da, Ticketmaster sarean.

### Juan Luis Guerra izan da Grammy Latinoetako protagonista

Grammy Latinoen 11. edizioan Juan Luis Guerra abeslari dominikarrak, bere 4.40 bandarekin batera, hiru sari eskuratu zituen *A son de guerra* diskoari esker. Eskura zitzakeen lau sarietatik hiru lortu zituen, tartean, urteko diskoari saria.

## ASTEA GOIENAN

### GOENA TELEBISTA

**ASTELEHENA 15**



**Behobia-Donostia Harmailatik**

20:45

Xabi Urtzelaik aurkeztutako saioan, Behobia-Donostia lasterketa eta saskibaloiko derbia hizpide.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:15** Urrakiko igoera
**15:45** Ikusmira
**16:15** 28.Klip
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:45** Klik
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Goiena Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura
**23:45** Goiena Magazinea

**MARTITZENA 16**



**Pedro Iturbe Magazinean**

19:45

Antzuolako alkatea izango da aste honetako gonbidatua Eneko Azkarate kazetariak gidatutako saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Kiroleroak
**16:30** Haurrekin jolasean
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Nire Herria
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Danbaka
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Iragana gogoratuz
**23:30** Goiena Magazinea

**EGUAZTENA 17**



**Guraso-banatzea hizpide tertulian**

20:45

Larraitz Zeberiorekin batera, Enara Agirre psikoterapeuta eta Oñatiko Juankar Olaeta izango dira.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:10** Iragana gogoratuz
**15:45** Onein
**16:15** 28.Klip
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:35** Harmailatik
**18:20** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Tertulia
**21:45** Goiena Magazinea
**22:45** Tertulia
**23:45** Goiena Magazinea

**EGUENA 18**



**Ymotek taldearen emanaldia**

20:45

Abadiñoko metal taldeak Danbakako IV. edizio honetan Espaloian eskainitako kontzertua ikusgai.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Tertulia
**15:45** Gipuzkoa kultura
**16:15** Ikusmira
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:45** Onein
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Danbaka
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Nire Herria
**23:15** Goiena Magazinea

**EGUBAKOITZA 19**




**'Ipupomamua' txikienentzat**

18:15

Etxeko txikienei zuzendutako programa, egubakoitz arratsaldea alaitzeko aukera paregabea.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Lizardiko bertsolari gazteen txapelketa
**16:15** Odolki lehiaketa
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Iragana gogoratuz
**18:15** Ipupomamua
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Gipuzkoa kultura
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Danbaka
**23:15** Goiena Magazinea

### ARRASATE IRRATIA

#### 'Gran Via' Zarzuelarako sarrerak Arrasate Irratian

Arrasateko Amaia Antzokian azaroaren 20an, 21ean, 26an eta 27an eskainiko den Zarzuela emanaldirako sarrerak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera.

#### Markesina Inteligentearen nondik norakoak gaur

Arrasate Kristaldegiak egina, Markesina Inteligentea deritzona aste hontan jarriko dute martxan. Ideiaren sortzaileek Markesina Inteligentearen xehetasunen berri emango digute Arrasate Irratian. Gaur, astelehena, goizeko 10:00etatik aurrera, Igo Autobusera saioan.

#### Danbakako taldeen aurkezpena astero-astero

IV. Danbaka abian dela-eta oraingo edizioan parte hartzen ari diren taldeen aurkezpenak egingo dira astero, astelehenetik eguenera. Talde bakoitzaren gaineko informazioa emateaz gain, euretako bakoitzari egindako elkarrizketa entzuteko aukera eskainiko du Arrasate Irratiak, FMko 107.7an.

# Goienak 10 urte ospatuta, berritasun ugarirekin ekingo dio aro berriari

**MAIALEN GONZALEZ** | KOMUNIKABIDEAK

Berritasunez josita dator Goienaren etorkizuna. Igaro eguenean, hilak 11, Arrasateko Amaia Antzokian lagunez inguratuta eman zuen aro berriaren berri Goiena Komunikazio Taldeak.

Urteurreneko ekitaldia zuzenean eskaintzea izan da berritasunetako bat. Izan ere, Agustin Elkororen laguntzarekin, Goiena Telebistak platwotik kanpoko ekitaldi bat zuzenean eskaintzen duen lehen aldia izan zen.

**Goiena Telebista interneten**

Bestetik, Goiena Telebistak bere atala izango du *www.goiena.net* atarian: http://goiena.net/telebista/. Bertan, programazioa, bideo aipagarrienak edota bideo-iritziak egongo dira. Azken hau ere, berritasuna izango da.

**Irudi berria**

Goiena Telebistak irudi berria izango du, Goiena Komunikazio Zerbitzuek estreinatutakoa bere egiten duena. Informaziozko saio guztiek irudi antzekoa izango dute euren artean, eta bakoitzak bere kolore bereizgarria izango du: *Harmailatik*-en kolorea, berdea; *Berriak* saioarena, gorria; eta *Magazinea*-rena, urdina. Horrez gain, *euli* berriak ere bat egiten du Goienaren irudi berriarekin.

Arrasateko Lanbide Hastapeneko ikasleek jantzi dute Goiena Telebistaren platoa: dekoratuak muntatu, margotu eta beharrezko instalazio guztia egin dute. Goienak eta Lanbide Hastapenak elkarlanean jardun izan dute, eta ez da lehenengo aldia horrelako kolaborazio bat egiten dutela biek.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Azaroaren 21ean, 11:00etatik 19:00etara

ATE IREKIEN EGUNA ZIENTZIAREN KUTXAGUNEAN



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Haizea Tornay Belategi**
Azaroaren 7an, 7 urte. Etxeko printzesarentzat, familia osoaren partetik, patxo handi bat eta zorionak.



ESKORIATZA
**Goiatz Arana Larrañaga**
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak sorgintxo! Ederto pasau dogu txokolatadan ezta? Eta orain patinetan ibiltzera! Muxu handi bat Jauritxikitik, batez be Amaiur eta Uxuen partez.



OÑATI
**Izar Kortabarria Suarez**
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak potxola. Primeran pasa zure bostgarren urtebetetzean. Muxu pilla bat etxekoen partetik.





OÑATI
**Kepa Irizar**
Azaroaren 8an, 4 urte. Zorionak txikitxo eta urte askotarako!

ARETXABALETA
**Eneko Antelo Errasti**
Azaroaren 9an, 5 urte. Familiako guztion partetik, zorionak Eneko!



ARRASATE
**Amalur Arizabaleta**
Azaroaren 12an, 7 urte. Zorionak Euskadiko neskatila polittenari! Muxu eta besarkada handi-handiak zure 7. urtebetetzean, bereziki Gaizka eta amoñaren partetik. Segi halako alai eta zintzoa izaten!



ARRASATE
**Martin Balanzategi Ayala**
Azaroaren 12an, 7 urte. Zorionak. Oso ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik



BERGARA
**Manex Balentziaga Galparsoro**
Osintxuko Manexek azaroaren 16an, 4 urte, eta tio Diegok azaroaren 17an, zenbat urte? Zorionak, polit horiek. Pila-pila. Sara, amatxo eta aitatxo.



OÑATI
**Ekain Galparsoro**
Azaroaren 16an, 5 urte. Ekain maittia, etxeko guztion partetik zorionak eta muxu potolo-potolo bat. Asko maite zaitugu.



SORALUZE
**Izar Akemi**
Azaroaren 21ean urtebete egingo du. Zorionak aitatxo, amatxo eta anaiarreben partetik.



ORMAIZTEGI
**Goiatz Arana**
Azaroaren 9an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik.

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

**TELEBISTA**
52. KANALA
**INTERNET**
GOIENA.NET
**PAPERA**
ORAIN ARTEKO
*GOIENKARIA*

## JAIOTAKOAK



### Amets Fotmentí Ule

Arrasate. 2,820 kilo. Azaroaren 6an. Gurasoak: Silvia eta Alex. Argazkian, Amets jaioberria, gurasoekin.



### Ander Agirrebeña Gusheba

Bergara. 3,700 kilo. Azaroaren 7an. Gurasoak: Nevena eta Ion. Argazkian, Ander jaioberria, amarekin.



### Deiane Barandiaran

Arrasate. 2,820 kilo. Azaroaren 9an. Gurasoak: Ana Isabel eta Javier. Argazkian, Deiane jaioberria, amarekin.



### Ane Txaparro Dominguez

Antzuola. 3,650 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Oihana eta Iker. Argazkian, Ane jaioberria, gurasoekin.



### Maitane Eloisa Luque Abascal

Bergara. 3,150 kilo. Azaroaren 12an. Gurasoak: Davana eta Patxi. Argazkian, Maitane, aita eta aitaita Pedrorekin.



### Olaia Salagado Iglesias

Antzuola. 3,300 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Enara eta Ritxar. Argazkian, Olaia jaioberria, sehaskan lo.



### Markel Ruiz de Egino Rodriguez

Bergara. 3,320 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Bego eta Iñigo. Argazkian, Markel jaioberria, sehaskan lo.




### Unai Castro Morales

Bergara. 3,050 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Edurne eta Juanjo. Argazkian, Unai jaioberria, sehaskan lo.






## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK




LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5 | 1 | 5 | | 8 | | | |
| | 2 | 9 | 6 | 5 | | | | 4 |
| | | | | | | | | |
| | 7 | 3 | 2 | | 6 | | 4 | |
| 5 | 8 | | | | | | | |
| 2 | | | | | | 9 | 6 | |
| | | | 8 | | | | | |
| 3 | 4 | 7 | | | | 6 | 9 | 8 |
| | 6 | | | | 4 | 2 | 7 | 1 |

### HIZKI SALDA

Topa itzazu Shin Chan pertsonaien bost izen

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | A | Z | A | M | A | D | Z | E |
| G | A | T | Z | E | X | Z | B | B |
| Z | K | U | H | V | L | A | O | B |
| E | E | L | U | R | M | A | C | Z |
| G | Y | Z | I | O | N | A | H | G |
| A | P | X | A | K | N | A | A | E |
| E | B | M | S | A | E | A | N | W |
| A | L | S | M | E | N | E | J | Z |
| M | I | S | H | A | E | A | E | E |

### HIEROGLIFIKOA

Hegazti bat.




### SOLUZIOAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | A | Z | A | M | A | D | Z | E |
| G | A | T | Z | E | X | Z | B | B |
| Z | K | U | H | V | L | A | O | B |
| E | E | L | U | R | M | A | C | Z |
| G | Y | Z | I | O | N | A | H | G |
| A | P | X | A | K | N | A | A | E |
| E | B | M | S | A | E | A | N | W |
| A | L | S | M | E | N | E | J | Z |
| M | I | S | H | A | E | A | E | E |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 5 | 1 | 5 | 3 | 8 | 7 | 2 | 9 |
| 7 | 2 | 9 | 6 | 5 | 1 | 3 | 8 | 4 |
| 4 | 3 | 8 | 9 | 7 | 2 | 5 | 1 | 6 |
| 9 | 7 | 3 | 2 | 1 | 6 | 8 | 4 | 5 |
| 5 | 8 | 6 | 7 | 4 | 9 | 1 | 3 | 2 |
| 2 | 1 | 4 | 5 | 8 | 3 | 9 | 6 | 7 |
| 1 | 9 | 2 | 8 | 6 | 7 | 6 | 9 | 8 |
| 3 | 4 | 7 | 1 | 2 | 5 | 6 | 9 | 8 |
| 8 | 6 | 5 | 3 | 9 | 4 | 2 | 7 | 1 |






Hieroglifikoa: Ahatea.

## AI, ENE!

### Jarlekua eta liburuak gordetzeko lekua



Irakurtzeko altzari erosoa eta behin aspertutakoan liburuok txukun-txukun gordetzeko toki aproposa.
**jovenesfracasos.blogspot.com**

## AHOBERO

### "Baina Nafarroan bizi zara, eta gainerako mundutarrendako ez zara euskalduna"

**MANU REDONDO** | KAZETARIA

Iñaki Perurenari oraintsu esan dizkiote berbok, eta historia azalpenak eman behar izan ditu zergatik den euskalduna arrazoitzeko. Halakoak azaltzen hasi behar izatea, non eta norberaren etxean… Historiak babesten gaitu eta horri heltzea onena halakoetan.
**eibar.org**

## EGURALDIA



**Max.** 12º
**Min.** 5º

Giro nahasia eta euri zaparradak botako ditu. Tenperaturak behera egingo du.
**euskadi.net**


ASTELEHENEKOA

# goiena

2010-11-15

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM


## HAMARREKOA

# "Nire erabakia da beti maiteminduta egotea"

## Ilaski Serrano | Telebistako aurkezlea

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Euskal Telebistan aurpegi irribera aurkezle saltserorik egotekotan, berea da meritua. Bermeotar horrek (1976) promesa bakarra du egina, beti maitemundurik egotea.



GARI GARITANO

**1. Astelehen gogorra izaten duzu?**
Harreman gozoa eduki izan dut astelehenekin, ze ia 10 urtez asteburuetan lan egin baitut, atseden eguna izan dut urte askoan. Gustuko dut.

**2. Asteburuan parranda itzela eginda ere?**
Orain, askotan, zapatu gauez pizza bat jan eta film bat ikusita munduko pertsonarik zoriontsuena naiz.

**3. Orain *Mihiluze* grabatu eta listo! Ederto biziko zara.**
Eta egia da [Barre]. Onerako eta txarrerako da, ze gure lanbidean sekula ez baitakizu bihar non egongo zaren, eta ikasten duzu minutu bakoitza azkena balitz bezala aprobetxatzen.

**4. *Carpe diem*. Topikoegia ez?**
Ez naiz sartuko hipoteka baten, ez naiz sartuko ezkontza baten… halakoa naiz ni. Nire ate guztiak beti zabalik daude sartu edo irteteko.

**5. Hotza sartuko zaizu atetik kontuz ibiltzen ez bazara.**
Denaren gainetik nik disfrutatu egin gura dut. Nire erabaki bakarra da beti maiteminduta egongo naizela.

**6. Maitemintzea, baina, biren kontua ez da izaten?**
Gustura ez zaudenean eten egin behar da: bikotekidearekin, lanarekin... Beti bilatu behar izaten da gustura senti txokoa.

**7. *Mihiluze*-k, behintzat, eteteko itxurarik ez dauka.**
Honek ere topiko itxura du: gustura gaude, familia baten modukoa delako gure saioa. Baita parte-hartzaileekin ere; harreman pertsonala mantentzen saiatzen baikara.

**8. Jordi Hurtadoren moduan amaituko duzu. Hari moduan, zuri ere istorio arraroak ateratzen dizkizute Interneten?**
[Barre] Nik ere ikusten nuen umetan! Ez dut uste guk hainbeste eutsiko diogunik.Denetarik entzun izan dut. Behin batek galdetu zidan ea zelan zegoen nire 10 urteko neskatila.

**9. Bermeotarra izanda, nolatan, ba, Nafarroako bailara estu baten bizitzen?**
Hegaluze saria eta guzti eman zidaten nire herrian Bermeoren izena kanpoan zabaltzeagatik. Nafarroan bizi naiz, baina nik itsasoaren usaintxoa behar-beharrezkoa dut.

**10. Eta ulertzen dute nafarrek *bermioera*?**
Noski, gauzak hiru-lau bider errepikatuta. Bestela, imintzioekin, nik asko mugitzen ditut -eta eskua hitz egiteko. Etxeko marka da.

### GOMENDIOA

### "Disfrutatu, hamar minutu dira-eta"

"Nahiz eta asko prestatu, garaipena ez dago inola ere ziurtatua. Zorteak zeresan handia dauka. Gomendio bakarra: disfrutatu, ze hamar minutu besterik ez baitira. Sekulako giroa dago, eta, kaxa irabazi edo ez, mundu guztia joaten da pozik etxera. Parte-hartzaileen senide eta lagunak etortzen dira gero, pentsa!"

## BIHARAMUNA



**MARIA AGIRRE**

### Nire lehenengo Levi's-ak

Egunotan jakin dugu Bergarako Tavex, praka bakeroen oihala egiten duen lantegia, itxi egingo dutela. Albiste tristea, Bergarak kotoiarekin izan duen urtetako historia eten egingo baita. Niri, baina, lehenengo Levi's praka bakeroak ekarri dizkit gogora. Adineko hainbatek bezala, nik ere gogoan dut une "inportante" hura.

Hamahiru bat urte, zazpigarren mailan nengoen. Udarako ikasgai batzuk intzilik gelditu, eta amak, aprobatuz gero, Levi`s-ak erosiko zizkidala agindu zidan. Ikasgaiak gainditu, eta Bergarara joan ginen. Aitaren lehengusuaren dendan erosi genituen, Agirre dendan.

Nik uste dut, garai hartan bailaran Levi's-ak saltzen zituen denda bakarra zela. Behin bakeroak eskutan, erritualarekin hasi nintzen; Levi's-ek gorputzaren itxura hartzeko, prakak jantzi eta dutxan sartu beharra zegoela esaten bait-zen. A zer komeriak! Tinta urdina batetik eta bestetik, eta hankak urdin-urdin. Pare bat urtean uste dut kendu ere ez nituela egin. Izan ere, nire lehenengo Levi's-ak izan ziren haiek.


